



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 12a

10. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua. Honen bidez, hemezortzi kreditu berezi, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak, eta hiru kreditu gehikuntza, guztira 1.156.720 euro egiten dutenak, ematen zaizkie Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, Toki Administrazioiko Departamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Osasun Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta aurrekontuetan eragina duten beste neurri batzuk hartzen dira, aurrekontuen diru urritasunari aurka egiteko (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desfektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duena (4. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

- Lankidetz hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura. Europako Parlamentuak Iraken aurka gerta daitekeen gerrari buruz hartutako erabakia Nafarroako Gobernuko Lehendakariak ontzat ematen ote duen jakiteko, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (9. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina onesten duena (10. or.).
- 3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (31. or.).
- 4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (42. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua. Honen bidez, hemezortzi kreditu berezi, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak, eta hiru kreditu gehikuntza, guztira 1.156.720 euro egiten dutenak, ematen zaizkie Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Osasun Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta aurrekontuetan eragina duten beste neurri batzuk hartzen dira, aurrekontuen diru urritasunari aurka egiteko**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2003ko otsailaren 3an hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua. Honen bidez, hemezortzi kreditu berezi, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak, eta hiru kreditu gehikuntza, guztira 1.156.720 euro egiten dutenak, ematen zaizkie Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Osasun Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta aurrekontuetan eragina duten beste neurri batzuk hartzen dira, aurrekontuen diru urritasunari aurka egiteko".

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Aipatu foru lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izan den ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena.

Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Lege proiektua. Honen bidez, hemezortzi kreditu berezi, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak, eta hiru kreditu gehikuntza, guztira 1.156.720 euro egiten dutenak, ematen zaizkie Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Osasun Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta aurrekontuetan eragina duten beste neurri batzuk hartzen dira, aurrekontuen diru urritasunari aurka egiteko**

Ikusi da indarrean dagoen aurrekontuko gastu kontzeptu batzuetarako ez dagoela behar adina diru. Behar horiek betetzeko, kreditu berezi batzuk eta kreditu gehikuntza batzuk eman dira, Nafa-

rraoko ogasun publikoari abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

**1. artikulua.** Hemezortzi kreditu berezi ematen dira, guztira 6.487.105 euro egiten dutenak eta gastuetako kontusail hauei egotziko zaizkienak:

– 010001-00001-2261-112100 kontusailari, "Hauteskundeak" izenekoari, 550.000 euro.

– 030001-05130-6090-126702 kontusailari, "Nafarroako lurralde-argibideetarako sistema" izenekoari, 325.000 euro.

– 051000-02100-6054-222102 kontusailari, "Segurtasunerako tresnak" izenekoari, 10.000 euro.

– 110000-11000-4810-134300 kontusailari, "Merkataritza Ganberarekiko Hitzarmena, Europako Batasunean parte hartzeko" izenekoari, 300.000 euro.

– 212002-21300-7600-432300 kontusailari, "Oinarrizko oinagituretarako jarduketara osagarriak. Cascanteko Udalarekiko Hitzarmena" izenekoari, 412.533 euro.

– 212002-21300-7600-432303 kontusailari, "Iruñeko Udalarekin hiru urtean behin Mendilloriren gainean izenpetu beharreko Hitzarmena" izenekoari, 1.111.872 euro.

– 212002-21300-7600-432304 kontusailari, "Andosillako Udalarekiko Hitzaremana, kasino zaharra gaiberritzeko proiekturako" izenekoari, 187.000 euro.

– 451000-42100-4709-456100 kontusailari, "Atzerrikoak sustatu, argitaratu eta zabaltzea" izenekoari, 48.080 euro.

– 451000-42100-7810-455100 kontusailari, "Misterio de Obanos Fundazioarekiko Hitzarmena" izenekoari, 180.300 euro.

– 451000-42120-7600-452104 kontusailari, "Gizarte eta kultur etxeak eraiki eta hornitzea" izenekoari, 300.500 euro.

– 452000-42200-7600-455100 kontusailari, "Jaun Done Jakue Bidea ezagutaraztea: Garesko eta Uharteko ostatuak" izenekoari, 600.000 euro.

– 452000-42230-6020-452103 kontusailari, "Xabierko plan zuzentzailea. Haren monumentuaren egokitze-lanak eta V. Mendeurreneko ekitaldiak" izenekoari, 901.520 euro.

– 500000-51000-7810-411100 kontusailari, "ADONArekiko Hitzarmena, Lanzko zentrorako" izenekoari, 60.000 euro.

– 910001-91110-2269-313003 kontusailari, "Ezinduen Europako Egunari loturiko ekitaldiak" izenekoari, 60.000 euro.

– 910001-91110-4810-313003 kontusailari, "Ezinduen Europako Egunari loturiko ekitaldietarako dirulaguntza" izenekoari, 120.300 euro.

– 923002-93200-4810-313503, "TASUBINSA eta ANFASendako dirulaguntza" izenekoari, 660.000 euro.

– 940001-95010-7600-457105 izenekoari, "Berriozarko Udalarendako dirulaguntza, belardi bat landatzeko" izenekoari, 600.000 euro.

– 940003-95210-4810-323102 kontusailari, "Gazteak gizartean eta lan munduan bideratzeko programak" izenekoari, 60.000 euro.

**2. artikulua.** Hiru kreditu gehikuntza ematen dira, 1.156.720 euro egiten dutenak eta gastuetako kontusail hauei egotziko zaizkienak:

– 410001-41120-7810-424103 kontusailari, "Ikastetxe pribatueta obretarako dirulaguntza" izenekoari, 1.000.000 euro.

– 441000-43100-4812-422402 kontusailari, "Turismo Eskolarendako dirulaguntza" izenekoari, 78.000 euro.

– 511002-51120-4810-413902 kontusailari, "Nafarroako Odol Emaileen Elkartearendako dirulaguntza" izenekoari, 78.720 euro.

**3. artikulua.** 1. artikuluan aipatzen diren kreditu bereziak eta 2. artikuluan aipatzen diren kreditu gehikuntzak aurrekontuko "Aurreko ekitaldietako superabitaren erabilera" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailetik finantzatu dira.

**4. artikulua.** 2003ko ekitaldirako, aurrekontuko kontusail hauek handitzen ahalko dira:

– 010001-00001-2261-112100, "Hauteskundeak" izenekoari. Kontusail horri gaineratzen ahalko zaizkio hauteskundeak egiteko behar diren lan eta inbertsio guztien gastuak. Horrez gain, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua izanen da hauteskundeetako hornidurak kontratatuzeko organoa, Nafarroako Foru Komunitateari dagozkionez.

– 051000-02100-6054-222102, "Segurtasunerako tresnak".

– 511002-51120-4810-413902, "Nafarroako Odol Emaileen Elkartearendako dirulaguntza" izenekoari.

– 870000-83100-4810-315102, "Ekonomia eta Gizarte Aferen Kontseiluan diharduten sindikatu, ekonomia sozialeko elkarte eta enpresaburu era-

kundeendako ordainak, bertan parte hartzeagatik" izenekoa.

– 923002-93200-4810-313503, "TASUBINSA eta ANFASendako dirulaguntza".

**5. artikulua.** Apirilaren 6ko 4. artikulua aldatzen da, Eskubide Sozialen Gutun bat sartu ahal dadin. Honelaxe geldituko da:

“4. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa hauxe izanen da: lanbideen arteko hilabete bateko gutxieneko lansariaren ehuneko 80ko dirusarrerak bermatzeko behar dena. Beste pertsona bat,

bigarrena, baldin badago lanbideen arteko hilabete bateko gutxieneko lansariari ehuneko 15 gehituko zaio. Hirugarren pertsonatik goiti lanbideen arteko hilabete bateko gutxieneko lansariari ehuneko 10 gehituko zaio.

Familia batek ere ez du kobratuko oinarrizko errenta moduan lanbideen arteko hilabete bateko gutxieneko lansariaren ehuneko 130etik goiti.”

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2003ko otsailaren 3an hartutako erabakiaren bidez, Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.-** Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duena Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten duena**

#### **ZIOEN AZALPENEA**

Mendabiako Udalak eskatu du 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adieraz dadila, ondoren zuzenean saldu ahal izateko, bertan instalazio industrial batzuk eraikitzeke. Eremua honelaxe banatuko da: Angel Ganuza Lacalle jaunarendako 1.024 metro koadro; Gloria Elvira Díaz andrearendako 4.500 metro koadro; Pilar Salcedo López andrearendako 6.466 metro koadro; Tomás Martínez Sainz jaunarendako 6.660 metro koadro; eta Julia Teresa Saenz-Díez Lerdo de Tejada andrearendako 19.442 metro koadro.

Eskaturiko desafektazioaren xedea hauxe da: Udalak eta Manipulados Mendavia S.L. enpresak bi milako eta biko otsailean izenpeturiko ituna betetzea, instalazio berrietarako proiektu bat burutu eta bertan autoendako produktu osagarriak ekoizteko.

Nafarroako toki administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Mendabiako Udalak desafektatu asmo duen eremuaren desafektazioak foru legearen bidezko onespena behar du.

**1. artikulua.** Mendabiako Udalaren 38.092 metro koadroko herrilurren desafektazioaren onura publikoa adierazi eta hura onesten da. Metro koadro horiek 4. poligonoko 1861. lurzatian, 5. poligonoko 5021. lurzatian, 2. poligonoko 762. lurzatian, 5. poligonoko 5020. lurzatian eta 6. poligonoko 2079. lurzatian daude.

**2. artikulua.** Baimena ematen zaio Mendabiako Udalari lur haiek Angel Ganuza Lacalle, Gloria Elvira Díaz, Pilar Salcedo López, Tomás Martínez Sainz eta Julia Teresa Sainz-Díez Lerdo de Tejada jaun-andreei zuzenean saltzeko, Manipulados Mendavia S.L. enpresaren fabrika paratzeko erosi zitzaizkien lurren truk, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Salmentako ituneko klausula batek xedatu dezala lurak herri ondarera itzuliko direla, baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila kontratua izenpetzen duen agiri publikoan, Jabetza Erregistroan sartzen den hartan.

c) Gehienez ere bost urteko epean herrilur berriak erosteko Udalak emaniko hitza bete dezala, desafektaturiko lurren salduz irabazten duen diruaz.

d) Mendabiako Udalak behin betikoz onetsiriko baldintza pleguan ageri diren erabakiak bete daitezela 38.092 metro koadroko herrilurrak Angel Ganuza Lacalle, Gloria Elvira Díaz, Pilar Salcedo López, Tomás Martínez Sainz eta Julia Teresa Sainz-Díez Lerdo de Tejada jaun-andreei saltzeko.

### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko**

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela agintzen da: "Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko".

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Lankidetzaren hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean sinatzekoa, lurralde-kooperazioko programen barruan irakurketa sustatzeko**

Madrilen, bi mila...ko .....aren ...(e)an

**PARTE HARTZEN DUTE**

Alde batetik, Nazioko Gobernuak, eta haren izenean Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministro Pilar del Castillo Vera andreak, apirilaren 27ko 561/2000 Errege Dekretuaren babesean.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak ordezkatuz eta haren izenean, Hezkuntza eta Kultura kontseilari Jesús Laguna Peña jaunak.

**AZALTZEN DUTE**

Bi aldeak bat datozela hezkuntza sistemako maila guztietako ikasleen artean irakurketa sustatzea komenigarria dela esatean, bereziki Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, zeren lehendabiziko urteetan hartzen baita irakurtzeko ohitura eta gozamenak.

Bat datozela orobat esatean eskoletako liburutegiak direla tokirik aproposena ikasleek liburuen maileguarekin nahiz errespetuzko erabilerarekin ohitzeko.

Horrenbestez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak, irakurketa sustatzeko plan nazionalaren barruan, "Irakurtzeko pasaportea: bidaia liburuen munduan barrena" izeneko lurralde-lankidetzako programa garatzeko asmoa dute, ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua.

Helburu horiek lortzeko tresna den aldetik, bi erakundeek, legez esleituak dituzten eskumenen bidezko erabilera eginez, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen dute. Honi esker, Nafarroako Foru Komunitateko ikasleek beste autonomia erkidegoetako ikasleekin batera parte hartu ahaliko dute irakurketa sustatzeko arestian aipatutako ekimenean. Hona

**OINARRIAK**

**LEHENA.- Xedea.**

Hitzarmen honen asmoa da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko lankidetzaren araubidea ezartzea. Hitzarmenak xede du Lehen Hezkuntzako ikasleen artean irakurtzeko ohitura sustatzeko eta eskoletako liburutegiaren erabilera suspertzeko jarduketak garatzea. Jarduketa horiek "Irakurtzeko pasaportea: bidaia liburuen munduan barrena" izeneko lurralde-lankidetzako programaren bidez gorpuztuko dira.

Programaren bidez, funtsean, Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzaren esku jarriko da, 2002/2003 ikasturtearen hasieran, "irakurtzeko pasaportea" bat; hartan, eskolako liburutegian nahiz gelako liburutegiak maileguan hartzen dituen liburuen identifikazio-datuak idatziko ditu,

bai eta hari buruzko ohartxoren bat ere. Liburua itzulitakoan zigilua jarriko zaio pasaportearen.

Ikasturtearen hasieran, berriz, album bat emanen zaio ikasleari, aipatu liburutegitik liburu bat hartu edo itzultzen duen bakoitzean emanen zaizkion kromoekin osatuz joanen dena.

#### BIGARRENA.-Indarraldia.

Hitzarmenak sinatu eta biharamunean hartuko du indarra, eta indarra izanen du 2002/2003 ikasturtea bukatu bitarte. Hurrengo ikasturteetarako luzatu ahalko da, aldeetako batek berrikusteko eskatu edo salatzen ez badu.

Lankidetzaren hitzarmena luzatuz gero, hitzarmenaren eranskin gisa formalizatuko dira hura finantzatzeko urtez urteko akordioak.

#### HIRUGARRENA.- Aldeen betebeharrak. Finantzaketa

A. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarenak:

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bere gain hartzen du:

- Lehen Hezkuntzako ikasleek erabiltzeko materialen prestaketa —eskoletako liburutegien erabilera eta irakurketa bultzatzen dutenena— kontratatzea eta ikastetxeetan banatzea.

- 2002/2003 ikasturterako programa osatuko duten elementuen prestaketa finantzatzea, bai eta hura nazio osoan banatzea ere, Estatuko 2002ko aurrekontu orokorretako 18.03.423A.227.06 kontusailaren kargura. Xede horretarako, 1.502.530,26 euro bideratuko dira guztira.

- Programa hau antolatzen eta honen jarraipena egiten laguntzea autonomia erkidegoei.

B. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, berriz, bere gain hartzen ditu ondoko betebeharrak:

Programa erkidegoan zabaltzen eta ezagutarazten laguntzea.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari ematea Lehen Hezkuntzako ikastetxeen zerrenda, ikastetxe bakoitzean jarduketak burutzeko beharrezkoak diren materialen kopurua adierazita.

Programaren koordinatzailea izendatzea.

Programa garatzeko jarduketan jarraipena eta ebaluazioa zuzentzea.

#### LAUGARRENA.- Jarraipen batzordea.

Batzorde misto bat eratuko da hitzarmen honen kontrola eta jarraipena egiteko, legez era-

tutzat joko dena gutxienez ere haren kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean. Batzordea gutxienez ere urtean behin bilduko da, edo kide batek eskatzen duenean. Batzorde mistoko kide izanen dira:

- Lurralde-lankidetzako eta goi ikuskaritzako zuzendari nagusia, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Hezkuntza sustapen eta beken zuzendariorde nagusia, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Hezkuntza eta Kultura Departamentuko hezkuntza zuzendari nagusia, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Irakurketa sustatzeko planeko jarduketak —lurralde-lankidetzako programen barrukoak— koordinatzeko arduraduna, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Hezkuntza sustapen eta beken Zuzendari-tzaordetza Nagusiko irakasle aholkulari tekniko bat.

- Idazkari izanen da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ikasleen jardueretako zerbitzuko burua.

- Hori guztia gorabehera, beharrezko irizitako aditu nahiz teknikariak gonbidatu ahal izanen ditu bileretara Batzordeak.

Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

1. Hitzarmenean proposatutako helburuak eta alde bakoitzaren betebeharrak betetzen direla begiratzea.

2. Hitzarmen honek xede dituen jardueren garapena koordinatzea Foru Komunitatean.

3. Hitzarmen hau interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.

4. Hitzarmena garatu eta betetzean esleitzen ahal zaion beste edozein.

#### BOSGARRENA.- Amaiaraztea.

Hitzarmeneko klausularen bat ez betetzeak hitzarmena amaiaraztea ekarriko du, eta hartatik eratorritako betebeharrak desagertzea.

#### SEIGARRENA.-Araubide juridikoa.

Hitzarmen honi urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako araubide juridikoa aplikatuko zaio. Hitzarmena interpretatu eta aldatzerakoan orobat aplikatuko zaiz-

kio administrazio zuzenbideko gainontzeko legeak.

ZAZPIGARRENA.- Jurisdikzioa.

Hitzarmena interpretatu eta betetzean sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ezagutu beharrekoak eta haren eskumenekoak izanen dira, arestiko klausuletan ezarritakoa gorabehera.

Arestiko hizbaketekin bat datozela adierazteko, bi aldeek hitzarmen honen eragin bakarrerako bi ale sinatzen dituzte hitzarmen hau bi aldeek, ut supra adierazitako toki eta egunean.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministroa: Pilar del Castillo Vera

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura. Europako Parlamentuak Iraken aurka gerta daitekeen gerrari buruz hartutako erabakia Nafarroako Gobernuko Lehendakariak ontzat ematen ote duen jakiteko**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup> TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak idazki bat aurkeztu du galdera batzuk eginez Nafarroako Gobernuko Lehendakariari Iraken aurka gerta daitekeen gerrari buruz. Aipatu Parlamentuko Taldeko eledunak eskatuta eta Erregelamenduko 37.1 eta 181. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Idazki hori premiazko jabelduratzat hartzea.
2. Europako Parlamentuak Iraken aurka gerta daitekeen gerrari buruz hartutako erabakia Nafarroako Gobernuko Lehendakariak ontzat ematen ote duen jakiteko jabelduraren biderapena onestea. Jabeldura hau foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak aurkeztu du.
3. Osoko Bilkura batean izapidatzea.
4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **JABELDURAREN TESTUA**

Iraken aurreikusita dagoen gatazka armatua ez zaio arrotza Nafarroari. Europako herritar garen aldetik, albo batera utzi ezin dugun nazioarteko iritzi publikoaren parte gara. Nafarroako Merkataritza Ganbera ere agertu da kezkatuta, gure ekonomiari begira kaltegarria izan daitekeelako.

Europako Parlamentuak, urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran, ebazpen bat onetsi zuen

–287 boto alde, 209 kontra eta 26 abstentzio–. Haren bidez, NBEren “1441. ebazpena urratu izanak”, Nazio Batuen ikuskatzaileek adierazitakoari jarraikiz, “ez du justifikatzen Iraken aurka ekintza militarra abiatzea”, eta orobat zentsuratzeko du Ameriketako Estatu Batuek eraso “prebentibo” edo “alde bakarrekoa” egiteko aukera. Europako legebiltzarrak orobat adierazten du “alde bakarrekoko edozein ekintza militarren aurka dagoela” eta haren ustez “eraso prebentibo bat ez litzatekeela bat etorriko ez nazioarteko zuzenbidearekin ez eta Nazio Batuen Gutunarekin ere” eta “inguruko beste herrialde batzuk nahasiko litzuzkeen krisi larriago bat eraginen lukeela”. Legebiltzarrak eskatzen die Nazio Batuei “enbargoak irakiarrengan duen eragina” azter dezala, “beharrezkoa baldin bada enbargoa altxatzeko neurriak” definitzeko, eta EBko agintariei eskatzen die “argi adierazteko Etxe Zuriari Ekialde Hurbileko gatazka konpontzea dela EBren lehentasunik handiena”. Saddam Huseinen erregimenari, berriz, exijitzen dio “ikuskapenak baldintzarik gabe eta mugarik gabe egiten uzteko” eta NBEko desarmadituen buru Hans Blixen eskari guztiei jaramon egiteko.

Europako Talde Popularrak –UPN talde horretako kidea da– ebazpen horren aurka bozkatu zuen. Aznar tesirik gerrazaleenak ari da onartzen. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuko lehendakariak bere egiten al du Iraken aurreikusitako gerrari buruz Europako Parlamentuak onetsitako ebazpena?

– Nola ikusten du Espainiako Gobernuko lehendakariak darabilen jarrera?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina onesten duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina onesten duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategina onesten duena**

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legeak, Seigarren Xedapen Gehigarrian honela zehazturik jasotzen du Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testuategin bat egiteko Parlamentuak Gobernuari emandako baimena:

"Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoko 21. artikuluan xedatuaren babesean, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari bat egin ditzan Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arau indardunak 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta bat egitekoak diren lege testuak erregularizatu, argitu eta harmonizatu ditzan".

Testuategina prestatzeko bidea errazteko asmoz, 3/2002 Foru Legeak Zergaren arau oinarrikoaren aldaketa zenbait jasotzen ditu. Arau oinarrikoa osatzen zuten, hain zuzen ere, 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiak onetsi zituen Oinordetzen eta Ondare-

eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga orokorren arauak.

3/2002 Foru Legea onetsi zenez gero, testuategina prestatzeko abiapuntua 1970eko Arauaren edukia da ezinbestean, eta, baimenaren arabera, agindu batzuk antolatu eta beste batzuk argitu eta interpretatuz gauzatu beharko da arau koherente eta argi bat.

1970eko Arauaz honako hau esan dezakegu:

1. Gaur eguneko testua onartu zenetik denboran zehar izan dituen aldaketa eta indargabetze espresuen ondoren hartzen dugu, eta Testuateginaren Xedapen Indargabetzaileak zerrendan ematen dituen arauak aztertuz haien jarraipen argia egin daiteke.

2. 1981eko martxoaren 17an Foru Parlamentuaren Erabakiz onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Arau erregulatzailerak, 1970eko Arauaren aginduak espresuki indargabetzen ez bazituen ere, inplizituki hein handi batean indargabetu zuen. Izan ere, 1970eko Arauak \_gorago aipatu da izenburua\_ arautzen zituen, alde batetik, "mortis causa" eskurapenak dei litezkeenak, zeinetaz arduratzen baitzen Oinordetzen gaineko Zerga Orokorra, eta, bestetik, "inter vivos" eskurapenak, bai kostubidezkoak bai kostugabeak, zeinak sartzin baitziren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorren esparruan, eta gainera Atariko Tituluan eta Bosgarren Tituluan antzinako Zergaren bi esparruetako zenbait xedapen orokor eta erkide arautzen ziren.

Horren arabera, "erkide" dei ditzakegun artikuluetako bakoitzaren edukitik Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari aplikagarri zaiona atera dezakegu, alde batera utzirik Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Orokorrak tratatu duena.

3. Aurreko puntuan adierazitakoaren ildo bere-  
tik, O.E. eta E.J.D.en gaineko Zergaren 1981eko

Arauk deklaratu du, xedapen iragankorren, aplikagarri zaiela dohaintzei eta gainerako "inter vivos" eskualdatze kostugabeei 1970eko Araua harik eta Oinordetzen eta Dohaintzen Zerga berriak indar hartu arte.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak, orain arte ez baitzegoen halakorik, dohaintzei ere karga ezar diezaien, beharrezkoa zen legegintzako erreforma batek Zergaren peko egintzat argi eta garbi sar zitzan, horrela gaindituko baitzen aurreko egoera, zeinean dohaintzak, alde batetik, "inter vivos" ondare-eskualdaketen esparruan sartzen baitziren eta, bestetik, 1970eko Arauen pean baitzeuden, eta arau horiek, berek ere, "mortis causa" eskualdaketen arauetara igortzen baitzuten etengabe.

Legegintzako Erreforma hori burutu da 3/2002 Foru Legearen bidez.

4. 3/2002 Foru Legeari egin zaizkion erreformek konpondu dute ahaide hurbilen arteko esku-rapenatarako zegoen 0,80ko zerga-ordainketa historikoa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan txertatzearen arazoa, eta orain karga hori ez da Egintza Juridiko Dokumentatuen kontzeptuan sartzen, martxo arteko erreforman bezala, baizik eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Tarifen barruko tasa berriazko bihurtzen da.

5. Gaur egun hor dugu Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, 13/2000 Foru Legea, oso kontuan hartu beharrezkoa, bertan baitago alderdi askoren erregulazio oinarrikoa, batez ere tributuen kudeaketari buruz. Eta horrek hara igortzera behartzen gaitu batzuetan, eta, beste batzuetan, berriz, bertan ikuspegi orokorretik araututa dauden gaiak arautu gabe uztera; izan ere, horrek alferrikako bihurtzen du Oinordetzen eta Dohaintzen tratamendu berriazkoa.

6. Baldin eta Gobernuari emandako baimenez antolatuta, argitu eta harmonizatu nahi bada bategi-tearen xede den araudia, 3/2002 Foru Legeko Seigarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duen bezala eta 1970eko Arauaren egituraren eta edukiaren arabera, iruditzen zaigu Gobernuak baduela oniritzia Estatuan eta beste erkidego batzuetan Zergaren araudi ordenatuagoa eta eguneratuagoa duten lege-testuetara jotzeko.

Horrelako testuetara jo dugu 1970eko Arauak ematen diguna baino idazketa zehatzagoa denean hangoa, eta gainerako artikuluekin hobeki heldu denean.

7. Kontuan hartu beharreko beste gorabehera bat honako hau da: Zerga hau erakunde zenbaiten tratamendu fiskalari ere badagokiola, eta

haien erregulazioa, funtsean, legeria zibilean aurkitzen dugula.

1970. urtean hiru urte falta ziren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa martxoaren 1eko 1/1973 Legeaz onesteko, eta, horregatik, Arau hark batez ere Kode Zibilean du oinarri erakunde haien kalifikazio juridikorako.

Gaur egun, Konpilazioak indarra duenez, ezin bestekoa da haren aipamenak egitea.

8. Azkenik, 1970eko araua aplikatuz Zergaren kudeaketan lortutako eskarmentuak aukera eman du jatorrizko idazketan zenbait aginduk zuten interpretazio-zailtasunaz jabetzeko; izan ere, batzuetan, benetan aplikaezina zen haietako baten bat.

Testu ongi eratu eta koherentea lortzeko asmoz, aldatu egin da 1970eko idazketa, eta ez da bertan sartu berez ulertzen dena, ezta ezer gehitu gabe nahastea dakarrena ere.

Legegintzako Foru Dekretuak dauzka: artikulua bakar bat, Testu bategina onesten duena, xedapen gehigarri bat, iragankor bat eta azken bat.

Testu Bategina honela dago osatua: 62 artikulua, hamabi kapitulutan banatuak, Xedapen Gehigarri bat eta Azken Xedapen bat.

Gorago 1970eko Arauari buruz esandakoak argi uzten du, beraz, hura funtsean oinordetzez gain "inter vivos" ondare-eskualdaketak arautzeko eginga zela eta, horregatik, alde batetik, oso zaila dela haren eskemari eustea, eta, bestetik, ez batere eraginkorra. Horregatik hartu dugu Estatu-koa oinarritzat, eta Testu Bateginaren zati bakoitzean sartu ditugu 1970eko zenbait arau, betiere, beste leku batean egon arren, zati batean hobeki txertatzen baziren.

I. Kapituluak, 'Xedapen Orokorrak' izenekoak, 1etik 7ra bitarteko artikulua biltzen ditu.

Kapitulu horretan adierazten da Zergaren xedea dela pertsona fisikoek kosturik gabe lortutako ondare-gehikuntzak zergapean jartzea. Pertsona juridikoek lortuak, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren pean daude.

Kapitulu horretan beste alderdi batzuk ere arautzen dira: legeria zibilera jo beharra (Konpilazioa espresuki aipatzen da) Zergan zeregina duten erakundeen eta ondasunen kalifikazio juridikorako; nola aplikatzen diren ahaidetasun-mailak, bereziki tarifar; kredituen eskualdaketa; ondasunen titulartasun eta titularkidetasun presuntzioak; baldintza etenarazle edo suntsitzailak noiz gertatzen diren; likidazioaren geroratze kasu bat eskualdaketa baten zenbatekoa erabaki ezin

denean eta Zergaren itzulketarako eskubidea kasu jakin batzuetan.

II. Kapituluak, "Zergapeko egintza" izenekoak, 8tik 10era bitarteko artikulua biltzen ditu.

Egintza zehazki mugatzen da. Alde batetik, zergapeko gehikuntzen zerrenda ematen da eta, bestetik, zergapekoak ez diren lau kasu finkatzen dira, zeinetako batek argitzen duen zein den Zerga honen esparrua pentsio-planen eta aseguruaren arloan Pertsona Fiskoaren Errentaren gaineko Zergari buruz.

Kapitulu honetan eskualdatze kostugabea ustez badelako hiru kasu ere aztertzen dira.

III. Kapituluak, "Salbuespenak" izenekoak, 11., 12. eta 13. artikulua biltzen ditu. Bertan jasotzen dira gaur egun indarra duten albuespenak eta bereizten dira "mortis causa" eskurapenetan, "inter vivos" eskurapen doakoetan eta aseguruetan eragina dutenak.

IV. Kapituluak "Subjektu pasiboak eta Zergaren erantzuleak" izenekoak, 14.etik 17.era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta esaten digu nortzuk diren zergadunak: kausadunak, dohaintza-hartzaiak eta onuradunak. Kasuren batean oinordekoa legatadunaren ordekoz hartzen da eta erantzukizun subsidiarioa hiru kasu eta solidarioa bat agertzen dira.

V. Kapituluak, "Zerga-oinarria" izenekoak, lau atalean banatzen da.

1. Atalak, 18. eta 19. artikuluetan, zergapeko egintza bakoitzari dagokio zerga-oinarria finkatzen du: banakoaren partearen balio garbia, onuradunak jasotako ondasun eta eskubide eskuratuen eta hartutako zenbatekoen balio garbia.

2. Atalak 20.etik 25.era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta banakoaren parte hori eta etxeko arreoak kalkulatzeko arauak ematen. Presuntzio zenbait ezartzen dira, eta horien arabera ondasuntzaren barruan kokatzen dira ondasun jakin batzuk, eta, azkenik, kargak, kausatzailearen zorrak eta kengarri diren gastuak arautzen dira.

3. Atalean, "Arau bereziak 'inter vivos' eskurapen doakoetarako" izenekoan, 26. eta 27. artikulua daude bilduta, eta horrelako eskurapenean kengarri diren kargez eta zorrez ari da.

Azkenik, 4. Atalak, "Balioen egiaztapena" izenekoak, artikulua bakarra du, 28.a, eta bertan, Tributuei buruzko Foru Legea igorri ondoren, azaltzen dira Zergaren egiaztapenerako bi bitarteko berariazko, ematen da aitortutakoaren eta egiaztatutakoaren arteko baliorik handienaren lehentasuna finkatzeko araua, eta aurrez ikusten da

egiaztapenaren eta likidazioaren jakinarazpen bateratua.

VI. Kapituluak, "Likidazio-oinarria" izenekoan, 29.etik a 32.era bitarteko artikulua jasotzen dira, eta murrizketa batzuk ere bai, hala "mortis causa" dohaintzetakoak, nola aseguruetakoa.

VII. kapituluak, "Zerga-zorra" izenekoak, 33.etik 35.era bitarteko artikuluek osatzen dute. Likidazio-arau orokorrak finkatu ondoren, batez ere ahaide-tasun maileri buruzkoak, 34. artikulua zergaren kuotaz ari da. Zazpi tarifa arautzen dira ahaidetasun-mailaren arabera; lehenbizikoa, 100eko 0,80 tasakoa da, eta, hortik abiatuz, ahaidetasuna zenbat eta urrunagoa izan, gero eta garestiagoak. Tarifa horietakoren batean likidazio-oinarria banatu egiten da, muga bateraino 100eko 0,80 tarifa eta soberakinari, berriz, dagokion eskala aplikatzeko.

Aurrez ikusia dago zerga-ezarpen bikoitzagatiko kenkaria aplikatu ahal izatea, beren egoitza Espainiako lurraldean izan eta atzerriko zerga bati lotuak direnen kasuan.

VIII. Kapituluak, "Sorrarazpena eta Preskripzioa", bi artikuluz osatua da, 36.a eta 37.a, eta bakoitza figura horietako batez ari da. Preskripzioa Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak ezarritakoari lotuko zaio.

IX. Kapituluak, "Arau bereziak", hiru atalez osatua da.

1. Atalak, "Xedapen orokorrak", 38.etik 40.era bitarteko artikuluek osatuak, arautzen ditu usu-fruktua, erabiltzeko eta bizitzeko eskubidea, pentsioak eta beste figura batzuk, hala nola hitz-emateak eta kontratu-aukerak, zentsuak eta transakzioak.

2. Atala, "'Mortis causa' eskurapenak, 41.etik 48.era bitarteko artikuluek osatuak, honako gai hauek arautzen ditu: banaketa, esleipen gehiegizkoak, "mortis causa" dohaintzak, oinordetza ez onartzea, ordezkariak, fideikomisoak, konfiantzazko heredamendua eta erreserbak.

3. Atalak, "'Mortis causa' Eskurapenak izenekoak, 49.etik 52.era bitarteko artikuluek osatuak, honako gai hauek arautzen ditu: kostubidezko eta ordain gisa emandako dohaintzak, ezkonsariak eta dotazioak, dohaintzen pilaketa eta dohaintzak jaraunspenari pilatzea.

X. Kapituluak, "Betebehar formalak" izenekoak, 53.etik 56.a bitarteko artikuluek osatuak, honako hauek arautzen ditu: subjektu pasiboek aitortzea aurkezteko duten obligazioa, agiriaren aurkezlearen figura, agintari, funtzionario eta parti-

kularek dituzten betebeharrak zenbait eta agiriak bulegoetan edo erregistro publikoetan dituzten ondorioak, ordaindu ez izanaren, salbuespenaren edo loturarik ezaren kasuetan.

XI. Kapituluak, "Zergaren Kudeaketa", 57.etik a 61.era bitarteko artikuluek osatua da eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari Zerga kudeatzeko eskumena eman ondoren, likidazio partzialak, Zergaren ordainketak eta haren geroratzak eta zatitzeak ari da.

XII. Kapituluak, "Arau-hausteak eta zehapenak" izenekoan, 62. artikuluan, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra arautzen duen araubiderako igorpena dago.

Testu Bateginaren Xedapen Gehigarrian Ekonomia eta Ogasun kontseilariari ahalmena ematen zaio Jabetzaren Erregistratzaileei Zerga kudeatu eta likidatzeko eginkizunak betetzeko mandatua emateko.

Legegintzako Foru Dekretuak erabilgarritzat jotzen ditu 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiko Arauak Zergaren Erregelamendua onesten ez den bitartean, eta espresuki arautzen ditu, tartea baterako betiere, aurkezteko epeak eta epe horien luzapena. Peritu-tasazio kontraesanezkoan, hala ere, hori gertatu arte, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra eta Ondare-eskualdaketak eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua aplikatuko da.

Testu Bateginaren Xedapen Gehigarriak baimena ematen dio Gobernuari testua garatzeko.

Xedapen Indargabetzailean Testu Bateginaren aurka egiten duten heinean zenbait arau indargabetzen dituen klausula orokorraz gain, zenbait xedapen espresuki indargabetzen diren zerrenda bat jasotzen da.

Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Kontseilura bidali zen, aginduzko irizpena eman zezan, Nafarroako Gobernuak 2002ko urriaren 14an hartutako Erabakiz.

Irizpen hori 2002ko azaroaren 22an eman zen, eta bertan adierazten zen arauaren edukia ados zela Legeriarekin, legezkontasun-oztopo zenbait konponduz gero, betiere, eta iritzi hori kontuan hartu da arauaren azken idazketan.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta biko abenduaren hamaseian egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren xedapenen Testu Bategina onesten da.

### **Xedapena gehigarria**

Legegintzako Foru Dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, Ganbera horren Erregelamenduko 158. artikuluko 6. idatz-zatiak agintzen duena betetzeko.

### **Xedapen iragankorra**

1. Zergaren Erregelamendua onetsi arte indarrean jarraituko dute 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakiaz onetsitako xedapenak eta Zergari buruzko gainerakoak, Testu Bateginak xedatzen duenaren aurkakoak ez diren heinean.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, eta erregelamendu bidez gai honi buruzko arau berriazkorik garatzen ez den bitartean, peritu-tasazio kontraesanezkoaren praktika, Testu Bateginaren 28. artikulua aipatzen duena, Tributuei Buruzko Foru Lege Orokorren 44. artikuluan xedatuak eta maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuak onetsi zen Ondare-eskualdaketak eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduari lotuko zaie.

3. Testu Bateginaren 53. artikulua erregelamenduz garatzen ez den arte, tributuei buruzko agiri edo aurkezpenak honako epe hauetan aurkeztuko dira:

a) Heriotzagatik eskurapenak direnean, bizitza-aseguruen kontratuen onuradunenak barne, sei hilabeteko epean, kausatzailearen heriotza-egunetik edo heriotza-deklarazioak indar hartzen duen egunetik kontatzen hasita.

Epe horixe bera erabiliko da usufuktu-eskurapenen kasuan eta usufuktudunaren edo pentsiodunaren heriotzaren menpeko pentsioenean, baldin eta jabariaren zatiketa dohaintzazkoa izan bada.

Heriotza Espainiatik kanpo gertatu bata letra honek adierazten duen epea hamar hilabetekoa izanen da.

b) Gainerako kasuetan, bi hilabeteko epean, sortzapen-datatik kontatzen hasita.

4. Testu Bategineko 53. artikulua erregelamenduz garatzen ez den bitartean, xedapen iragankor honetako aurreko idatz-zatiko a) letran finkatutak epeak luzatzen ahal ditu, epe berdinetarako, agiriak edo aitortpenak jasotzeko eskumena duen

bulegoak, idatz-zati horretan xedatutakoaren araberak.

Luzapen hori oinordeko, albazea edo utzitako ondarearen administratzaileek eskatu behar dute aurkezteko dauden epeetako lehen bost hilabeteen barnean edo, kasua bada, bederatziz hilabeteen barnean, hari erantsirik kausatzailearen heriotza-agiriaren ziurtagiria eta bertan adieraziz oinordeko deklaratu edo ustekoen izena eta bizilekua eta kausatzailearekiko ahaidetasun-maila, halakoren berri izanez gero, ondasun eta eskubideen egoera eta gutxi gorabeherako balioa eta eskaera hori egiteko arrazoiak.

Eskaera aurkeztu zenetik hilabete igarotzen bada erabakirik jakinarazi gabe, luzapena eman dela ulertuko da.

Ez da luzapenik emanen baldin eta eskaera aurkezten bada idatz-zati honen bigarren leerroldak aipatzen dituen epeak bete eta gero.

Eskatutako luzapena ukatzen bada, ulertuko da aurkezteko epeei gehitzen zaizkiela eskaera aurkeztu zen egunaren biharamunetik ukoa ematen duen erabakiaren jakinarazpenera bitarte iragan diren adina egun.

Luzapena eman izanak honako hau besterik ez du ekarriko berekin: haiseran ezarritako epeak bete zirenetik agiria edo aitortpena aurkezten den eguna arteko berandutza-interesak ordaindu beharra.

#### **Xedapen indargabetzailea**

1. Indargabetzen dira Testu Bateginak xedatzen duenaren aurkakoak diren aurreko aginduak.

2. Bereziki indargabetzen dira, testuan beren lekua dutelako eta Xedapen Iragankorrek dioena ezertan ukatu gabe:

– 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakia, Oinordetzen, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak onesten dituenak.

– 1992ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Legeko 50. artikulua.

– Urriaren 20ko 12/1992 Foru Legea, tributualdaketei buruzkoa.

– Zenbait zerga aldatzen dituen abenduaren 30eko 14/1995 Foru Legeko IV. Kapitulumak.

– Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa hein batean aldatzen dituen 22/1997 Foru Legeko 7. artikulua.

– Tributualdaketei buruzko abenduaren 30eko 23/1998 Foru Legeko 3. artikulua.

– Zerga-neurrii buruzko abenduaren 30eko 19/1999 Foru Legeko 4. artikulua.

– Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikori buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 12. artikuluko 2. idatz-zatia.

– Zenbait zerga aldatu eta beste zerga-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeko 6. artikulua.

– Zenbait zergaren karga-eskalak eurotara bihurtzen dituen urriaren 18ko 254/2001 Foru Aginduko hirugarren atala.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributual-neurri batzuk hartzeko martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legeko 7. artikulua, zarpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak eta hirugarren xedapen iragankorra.

#### **Azken xedapena**

Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

### **Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bategina**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Xedapen orokorrak**

**1. artikulua.** Helburua eta eremua.

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak, zuzenekoak eta subjektuaren gainekoak, pertsona fisikoek lortutako ondare-gehikuntza kostugabeei ezartzen die karga, foru lege honetan jasotzen den moduan eta ordainerazpenerako eskumena Hitzarmen Ekonomikoak diotenaren arabera Nafarroako Foru Komunitateari dagokionean.

2. Aurreko atalak aipatzen dituen ondare-gehikuntzak, pertsona juridikoek eskuratzen dituztenean, ez daude Zerga honen pean, Sozietateen gaineko Zergaren pean baizik.

**2. artikulua.** Arau zibilak.

1. Zergaren esparrua alde zibiletik mugatzen duten erakundeek kalifikazio juridikorako legeria zibilak agintzen duena hartu behar da kontuan.

Bereziki martxoaren 1eko 1/1973 Legeak onetsitako Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioan jasota daudenei kasu egingo zaie.

2. Izate, erabilera, xede edo aplikazio desberdinaren ondorioz Zergaren peko ondasunen kalifikazio juridikoa Kode Zibilarren II. Liburuan, I. Tituluaren xedatutakoari lotuko zaio, edo, halakorik ezean, Zuzenbide Administrazioan xedatuari.

Hala ere, ondasun higiezintzat joko dira, halaaber, salbuespenik gabe eta Zergarako, edozein modutako instalazio iraunkorrak, are egikeragatik mugigarriak direnak eta baita kokaturik dauden lurzatia instalazioen jabearena ez bada ere.

### **3. artikulua.** Ahaidetasun-mailak.

1. Foru lege honek aipatzen dituen ahaidetasun-maila guztiak odolkidetasunekoak dira eta, pertsonen izate eta ahalmenari buruzko gainerako inguruabarrak bezala, legeria zibilarren araupekoak izan behar dute.

2. Zerga honetarako adopzioa eta odolkidetasuna parekatu egiten dira.

3. Zerga honetarako, ez aurreko ez ondorengo diren ezkontzazko ahaideak, odolkidetasunezko hurrengo mailakoekin parekatuko dira.

4. Foru lege honen ondorioetarako, bikote egonkor bateko kideak ezkontideen egoera berean daudela ulertuko da.

### **4. artikulua.** Kreditu-eskualdaketak.

Kosturik gabe eskuratutako kreditu likidoek ere zerga ordaindu beharko dute, are orainean galda-garriak ez direnak.

**5. artikulua.** Titulartasun eta titularkidetasun presuntzioa.

1. Tributuei buruzko Foru Legeko 111. artikulua xedatutakoa arren, kontraktorik frogatu ezean, ulertuko da ondasunak eskualdatzailearenak zirela, haren izenean ageri zirenean gordailu, kontu korrante, mailegu bermedun edo antzeko kontratuetan edo katastro, jabetza-erregistro edo bestelako erregistro publikoetan.

2. Halaber ulertuko da ezen segurtasun-kutxetan utzitako ondasun eta baloreen kasuan, eta berdin partikularrei, bankuei, elkarte nahiz sozietatei, aurrezki-kutxa edo beste edozein entitate publiko nahiz pribaturi, gordailuan, kontu korrantean edo bestelako edozein kontratu zibil nahiz merkataritzakoren arabera emandakoen kasuan, pertsona bi edo gehiagori bereizkuntzarik gabe haien gaineko eskubide berdinak aitortzen bazaizkie, jabetzan eta zati berdinez direla titularretako bakoitzarenak, kontraktorik frogatzen ez bada;

froga hori bai Likidazio-bulegoak bai partikular nahiz interesatuek egin dezakete.

3. Titularkideak senarra eta emaztea baldin badira, kasu bakoitzeko ezkontza-araubide ekonomikoari dagokion legeria zibileko xedapenak aplikatuko dira, kontrako froga ezertan galarazi gabe, betiere, bai Administrazioaren bai partikularren ekimenez egin baitaiteke.

### **6. artikulua.** Baldintzak tartean izatea.

1. Baldintzaren bat tartean daukaten egintza edo kontratuetan, haien kalifikazioa Nafarroako Foru Berriko aginduek edo legeria zibil aplikagarriak emanen dute. Baldintza etenarazlea bada, Zerga ez da likidatuko hura bete arte, eta likidazioaren geroratzearen berri arauz agindu bezala jasoko da.

2. Testamentu-xedapena betearaztea soilik eteten duen baldintzak, Kode Zibilarren 799. artikulua arabera, ez du berekin ekarriko Zergaren likidazioa geroratzea; izan ere, Zerga oinordeko edo legatudunaren instituzio hutsa balitz bezala eskatuko baita berehala; baina muga-eguna iristen denean, behar diren zuzenketak egiten dira Administrazioaren edo zergadunaren alde, erregelamenduz zehazten den moduan.

3. Baldintza suntsiarazlea bada, kasu horretan ere Zerga berehala galdatuko da, nahiz eta, baldintza betetzen denean, bidezko den itzulketa egin beharko den.

### **7. artikulua.** Itzulketak.

1. Epaitegiak edo Administrazioak emandako ebazpen irmoz onartzen denean egintza edo kontratu baten deusezturik, deseginik edo suntsiturik geratu dela, zergadunak ordaindutako zerga-kota berreskuratzeako eskubidea izanen du, kostugabeko ondorioz ekarri ez badio eta itzulketa ebazpena odo onarpena irmo egin zenetik kontakturik lau urteko epean eskatzen badu.

2. Kostugabeko ondorioak daudela ulertuko da interesatuek justifikatzen ez dutenean Kode Zibilarren 1295 artikulua aipatzen dituen elkarrentzako itzulketak.

3. Egintzak nahiz kontratuak kostugabeko ondorioz sortu badu, egindako likidazioa zuzenduko da, eta horretarako ondasun edo eskubide eskuratuen usufuktuaren balioa hartuko da oinarritzat, foru lege honen 38. artikulua ezartzen duen moduan kalkulatu, egintzak edo kontratuak iraun duen denbora kontuan hartuz, kontratuaren izaeragatik usufuktu baten existentzia erabakitzerik ez dagoenean, eta ondorioz zergadunari likida-

zio berriaren eta lehenbizikoaren arteko diferentzia itzuliko zaio.

4. Egintzak edo kontratuak irabazizko ondorio-rik sortu ez badu ere, subjektu pasiboak zergarekiko dituen betebeharrak bete ez dituelako etetea edo ebazpena deklaratzeko bada, ez da ezer itzuliko.

5. Kontratua indarririk gabe gelditzen bada kontratu-emaile biek adostasun osoz hala erabaki dutelako, ordaindutako zergarik ez da itzuliko eta zergaren menpeko egintza berritza hartuko da. Elkarren arteko erabakitza hartuko da adostasuneko adiskidetze egintza eta eskaria bera onartzea.

## II. KAPITULUA Zergapeko egintza

### 8. artikulua. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintzat honako hauek hartzen dira da Zerga honen kasuan:

a) Ondasun eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz "mortis causa" eskuratzea, are inbentarioak edo banaketak formalizatu ez direnean ere.

b) Ondasun eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein "inter vivos" eta doako negozio juridikoz eskuratzea.

c) Bizitza aseguru-egintza kontratuaren onuradunek diru-zenbatekoak jasotzea, kontratu-egilea eta onuraduna pertsona ezberdinak direnean, eta aseguruak kontratatu duenean edo aseguru kolektiboa denean.

d) Aseguratua bizirik geratzen den kasuetarako bizitza-aseguru-egintza kontratu-egintza onuradunek diru-zenbatekoak jasotzea, onuraduna kontratu-egilea ez denean.

e) Aseguratua hiltzen den kasurako bizitza-aseguru-egintza kontratu-egintza onuradunek diru-zenbatekoak jasotzea, aseguratua kontratu-egilea ez denean.

### 9. artikulua. Lotura-egintza kasuak.

Ez daude zergari loturik:

a) Pentsio-planen onuradunek jasotako diru-zenbatekoak, eta ezta bizitza-aseguru-egintza onuradunek jasotakoak ere, kontratu-egilea onuraduna ez beste pertsona bat denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14.2. a) artikuluan araututako kasuetan.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru

Legearen 55.1.7. artikuluan ezarritakoaren ondorioz ezkontideen edo bikote egonkorretako kideen artean gertatutako eskualdaketak, xedapen horretan dagoen mugaraino.

c) Dirulaguntzak, bekak, sariak, primak, hobariak eta laguntzak, entitate publiko edo pribatuak ongintza, irakaskuntza, kultura, kirol edo gizarte ekintzako xedeekin emandakoak.

d) Bizitza-aseguru bateko kontratuaren onuraduna den aldetik hartzekodun batek aurreko zor baten kitatzea bermatzeko jasotako diru-zenbatekoak, betiere hori guztia ongi frogaturik baldin badago.

## 10. artikulua. Zergapeko egintzen presuntzioa.

1. Kostugabeko eskualdaketa izan dela joko da:

a) Erregistro fiskaletatik edo Administrazioak dituen datuetatik pertsona baten ondarearen gutxitzea gertatu eta aldi berean edo geroago, ez ordea bi urte baino gehiagora, haren arabera ondare-gehitzea izaten badu ezkontideak edo bikotekideak, edo ondorengoek nahiz haietako edozeinen ezkontide edo bikotekideak.

b) Erregistro edo datu horiek, pertsona bat ezkontide edo bikotekide alargunik ez seme-alabarik utzi gabe hiltzen denean, kausatzailearen ondarearen gorabeheretan gutxitzeak antzeman eta aldi berean edo gerora, baina ez hiru urte gaino gehiagora, haien arabera gehitzeak sumatzen badira oinordeko edo legatadunen ondarean.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta bajak ikertu eta aurkitzen bada ondorengoak nahiz ezkontideak alta hartzen duela beste ezkontide edo bikotekideak baja emandako negozio berean.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen presuntzioak interesatuen berri interesatuei aditzera emanen zaie, beren eskubideen alde egoki iruditzen zaizkien alegazio eta frogak aurkez ditzaten, dagozkien likidazioak igorri aurretik.

## III. KAPITULUA Salbuespenak

### 11. artikulua. "Mortis causa" eskurapenak.

Salbuetsirik daude:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak "mortis causa" eskuratzea Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko uztailaren



2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

b) Industria- edo negozio-bankuek 1962ko azaroaren 29ko Errege Lege Dekretuaren baldintzetan jaulkitako obligazioak eta kutxa-bonoak "mortis causa" eskuratzea, betiere kausatzaileak 1992ko ekainaren 24aren aurretik erosi baldin baditu. Horiez gainera, salbuetsirik daude hasierako tituluak amortizatu eta banku beretan berriz inbertitu diren tituluak eta kutxa-bonoak ere.

**12. artikulua.** Doako "inter vivos" eskurapenak.

Salbuetsirik daude:

a) Landa-finkak edo nekazaritzako ustiategiak dohaintzaz edo "inter vivos" eta doako beste edozein negozio juridiko dela medio eskuratzea, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako baldintzetan.

b) Eskualdaketak eta gainerako egintzak eta kontratuak, baldin eta beren xedea aurreko beste egintza batzuen eraginkortasunik eza salbatzea bada eta haiengatik Zerga ordaindu arren, ez izatea edo deuseztasuna dakarren akatsen bat bazuten.

**13. artikulua.** Aseguruak.

Foru lege honetako 8.c) artikulua aipatzen dituen bizitza-aseguruei buruzko kontratuen onuradunek diru-zenbatekoak jasotzen dituztenean, kontratu horiek 1992ko ekainaren 24a baino lehen gauzatu baziren, lehen 3.005,06 euroak salbuetsirik egonen dira kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna ezkontza bidezko aurreko edo ondorengotasuna bada.

#### IV. KAPITULUA

##### Subjektu pasiboak eta Zergaren erantzuleak

**14. artikulua.** Zergadunak.

1. Zergadun gisa behartuak dira Zerga ordaintzera:

a) "Mortis causa" eskurapenetan, kausadunak.

b) Dohaintzetan eta gainerako kostugabeko "inter vivos" eskurapen parekagarrietan, dohaintza-hartzailea edo onura hartu duena.

c) Bizitza-aseguruetan, onuradunak.

2. Aurreko idatz-zatian xedatua aplikagarri izanen da edozein direlarik ere aldeek ezarritako hizbaketak edo testamentu-egileak emandako xedapenak.

**15. artikulua.** Ordezkoak.

Eskudirutan, efektu publikotan edo bestelako higigarrien balore, pitxi, kreditu eta oro har ondusun higigarritan egindako legatuetan, legatudunaren kargura likidatuko da Zerga, baina zuzenean galdatzen ahal zaie jaraunspenaren oinordekoei, ordezkariari edo administratzaileei, zeinek, zergadunaren ordezkodun diren heinean, diru-zenbatekoa deskontatzen ahal dieten legatudunei legatua eskuratzen dutenean.

**16. artikulua.** Erantzuleak.

1. Zergaren erantzule subsidiarioak dira:

a) Gordailu, berme edo kontu korronteen "mortis causa" eskurapenetan, finantza-artekariak eta gordailaturiko eskudiru edo baloreak entregatu edo eraturiko bermeak itzuli dituzten gainerako entitate edo pertsonak.

Hemen ezartzen denerako, ez da joko gordailaturiko eskudiru edo baloreen entregatze ez eta berme-itzulketatze ere banku-txekeak libratzea gordailuen, bermeen edo saldu behar adinako baloreen salmentaren etekinen kontura, baldin eta horrek xede bakartzat badu "mortis causa" eskurapenari karga gisa ezartzen zaion Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, txekoa luzatzen bada Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin.

b) Onuradun gisa jaraunseleak edo kontratuetan izendaturikoak gertatzen direnei entregaturiko kopuruei dagokienez, entregatze horiek egiten dituzten Aseguru Entitateak.

Hemen ezartzen denerako, ez da aseguru-kontratuetakoa onuradunei eginiko kopuru-entregatze joko prestazio horren konturako ordainketa, baldin eta ordainketa horren helburu bakarra bada eskualdaketa horren eskurapenari ezarritako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea; betiere, Zergaren hartzekodun den Administrazioaren izenarekin luzaturiko bankutxeke bat onuradunei entregatuz egiten bada.

c) Jaraunspenekoak diren titulu-baloreen eskualdeketa bitartekari aritzen direnak.

Hemen ezartzen denerako, bitartekari horiek ez dira tributuen erantzuletzat joko, jaraunseleak aginduta baloreen salmenta egitera mugatzen badira, baldin eta salmentaren xede bakarra "mortis causa" eskualdaketa karga gisa ezartzen zaion Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga bera ordaintzea bada; betiere, salmenta horretan lortutakoa onuradunei entregatzeko bankuko txekoa luzatzen bada Zergaren hartzekodun den

Administrazioaren izenarekin, horretarako hark emandako baimenez.

2. Zergaren erantzule solidario izanen da foru, estatu, erkidego edo toki mailako edozein tributu edo ordainarazpenen subjektu pasiboa aldatzeko baimena ematen duen funtzionarioa, aldaketa horrek zuzenean edo zeharbidez baldin badakar Zerga honen kargaren peko eskurapen bat, eta zerga ordaindu izanaren frogarik eskatzen ez badu.

**17. artikulua.** Xedapen bereziak.

15. artikuluan xedatutakoa gorabehera, jarri gabekotzat hartuko dira, ondorio fiskaletarako, legatuen entregatzea Zergatik libre geldit dadila edo zergaren ordainketa jaraunspenaren edo pertsona jakin batzuen kargura izan dadila agintzen duten xedapenak, eta, ondorioz, ez da onartuko inolako aldaketarik foru lege honen arabera zerga ordaintzera behartuak diren pertsonen dagokienez.

## V. KAPITULUA Zerga-oinarria

### Lehen atala Arau orokorrak

**18. artikulua.** Zerga-oinarria

Zerga honen zerga-oinarria, foru lege honetako III. Kapituluaren eta gainerako xedapen indardunetan jasotako salbuespenetatik bidezko direnak aplikatu ondoren, honako hau da:

a) "Mortis causa" eskurapenetan, kausadun bakoitzak jaraunspeneko ondasuntzatik dagokion partearen balio garbia, halakotzat hartuz ondasun eta eskubide eskuratuen benetako balioa ken kargak, zorrak eta gastu kengarriak.

b) Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" eskurapen kostugabe parekagarrietan, eskuratutako ondasunen balio garbia, halakotzat hartuz ondasun eta eskubide eskuratuen benetako balioa ken kargak, zorrak eta gastu kengarriak.

c) Bizitza-aseguruetan, onuradunak jasotako diru-zenbatekoak.

Bizitza-aseguruetatik jasotako zenbatekoak likidatzeko, onuradunak oinordetzaz eskuratutako gainerako ondasun eta eskubideei zenbateko horiek gehituko zaizkie, kausatzailea banako aseguruaren kontratu-egilea edo aseguru kolektiboaren aseguraturua denean.

**19. artikulua.** Zerga-oinarriaren zehaztapena.

Oro har, tributu-administrazioak finkatuko du zuzeneko balioespenez zerga-oinarria, eta ez da

onartuko salbuespenik, ez bada foru lege honetan zehaztutako edo zerga-oinarrien zeharreko balio-espeneraren arauetan jasotakorik.

### Bigarren atala "Mortis causa" eskurapenetarako arau bereziak

**20. artikulua.** Banakoaren parteak.

1. Foru lege honetako 18. artikuluko a) letran xedatu denerako, jaraunspeneko ondasuntzat hartuko da eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioa, gehi etxeko arreoarena eta presuntzioen arabera gehitzen diren ondasunena, Atal honetan xedatutakoaren arabera.

2. Emaizaren zifrari kargak, zorrak eta gastu kengarri izan litezkeenak kendu beharko zaizkie.

3. Oinordekotza-xedapeneetan agintzen denean legatuen entregatzea Zergatik libre izan dadila edo zergaren ordainketa jaraunspenaren edo pertsona jakin batzuen kargura izan dadila, Zergaren zenbatekoa ez da hartuko legatuen gehikuntzat likidazio-oinarria zehazterakoan.

4. Testamentu-egileak edo oinordekoek egindako aitorten edo adierazpenak, esanez ondasun jakin batzuk besterenak direla, edo oinordetzako interesatuek egindakoak, esanez haietako batzuek jaraunspeneko ondasuntzatik bazter gelditu behar dutela, ez dute eraginik izanen ondasun horiek jaraunspenetik baztertzeko, non eta ez den Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan jasotako frogabideez eta oinordetzat gauzatzaren dataren aurretik garbi egiaztatzen besterentzat jotzen edo aitortzen den ondasunaren jabetza edo bazter uzteko arrazoi erabakigarria.

**21. artikulua.** Etxeko arrea.

Etxeko arrea kausatzaileak oinordetzan utzitako ondasunen 100eko 3 dela joko da, non eta interesatuek ez dioten kontzeptu horri balorazio handiagoa ematen edo ez duten frogatzen agiri fedemailez halakorik ez dela edo haren balioa apalagoa dela balioz, portzentaje hori aplikaturik lortzen den emaitza baino.

**22. artikulua.** Ondasun-gehitzea.

1. "Mortis causa" eskurapenetan, Zergaren likidazio eta ordainketarako, honako hauek hartuko dira oinordetzan utzitako ondasunen osagaitzat:

a) Hil baino urtebete lehenago bitarte gehienez ere kausatzailearenak ziren ondasunak, non eta agiri fedemailez frogatzen ez den hark ondasun horiek eskualdatu zituela eta oinordekoa, legatuduna, hirugarren maila bitarteko ahaideren bat, edo haietako edozeinen edo kausatzailearen

ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea ez den beste norbaiten eskuetan daudela. Presuntzio horrek indarra galduko du baldin eta behar bezala frogatzen bada oinordetzan utzitako ondasuntzan sarturik dagoela eskudirua edo subrogatutako beste ondasun batzuk, balio bertuko desagertuen orde.

Ondasun horiek kausatzailearenak izan zirela frogatzeko askitzat joko da, Zuzenbideko frogabide orokorrez gain, ondasun horiek haren izenean agertzea gordailu, kontu korrante, mailegu, eta abarretan, edo Katastroan eta Erregistro Publikoetan haren izenean inskribaturik egotea. Frogabide horien aurka gailentzeko, Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan jasotako baliabideak oinarritzat hartuz, frogatu beharko da, urte bete lehenagotik ondasun horiek ez zirela jada kausatzailearenak.

b) Heriotza baino hiru urte lehenagoko epean kausatzaileak kostubidez usufruktuan eskuratutako eskubide eta ondasunak eta jabetza soilean oinordetako batek nahiz legatadun, hirugarren mailaz barneko ahaide, haietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontideak edo bikote egonkorreko kideak eskuratuak ere.

c) Kausatzaileak bere heriotzaren aurreko lau urteetan eskualdatutako ondasun eta eskubideak, betiere haien edo eskuratzailearen beste edozein ondasunen usufruktua nahiz biziarteko beste edozein eskubide beretzat gordez, salbu utzirik biziarteko errenta-asegurua, horrelako eragiketetan legearen babesean aritzen diren entitateekin kontratatutak.

d) Balore edo efektu gordailatuak haien gordekinak endosatu badira, eta endosatzailearen heriotza baino lehen ez badira erretiratu edo endosoaren kontuhartzerik ez bada egin gordailatzailearen liburuetan, eta baita endosatutako balio izendunak ere, baldin eta transferentzia ez bada jaso Entitate jaulkitzailearen liburuetan kausatzaile hil baino lehen.

Ez da horrelako presuntziorik eginen behar adinako frogak daudenean eskualdatutako ondasun edo efektuen prezioa edo baliokidetasuna saltailearen edo lagatzailearen ondarean sartua dela eta haren jaraunspenaren inbentarioan ageri dela, zeina kontuan hartu beharko baita Zergaren likidaziorako, edo behar bezala argitzen bada balore edo efektuen erretiratzea nahiz endosoaren kontu-hartzea ez dela egiaztatzerik izan kausatzailearen heriotza baino lehen, haren eta endosatzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik Lerroalde honetan xedatuak ez du

ezertan galarazten aurreko a), b) y c) letretan ohartarazia.

2. 1. idatz-zatiko c) eta d) letrek aipatzen dituzten eskuratzaileak eta endosu-hartzaileak, oinordekoaz beste edonor badira, legataduntzat hartuko dira.

3. Ondasun horien balioa jaraunspeneko ondasuntzari gehituko zaio, eta oinordeko nahi legatadunari egotziko, bai berak baldin baditu bere esku bai haren ezkontide edo bikote egonkorreko kideak baditu.

4. Artikulu honetan xedatutakoa betetzean Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarengatik galdatzen ahal denean kuota handiagoa Onda-re-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan aterako litzatekeena baino, azken zerga horrengatik ordaindutakoa kenduko zaio lehenbiziko zergarengatik ordaintzea egokitu litzatekeenari.

5. Artikulu honetan ezarritako presuntzioak direla medio ondasun eta eskubideren batzuk jaraunspeneko ondasuntzan sartzeari uko egiten badiote interesatuek, horien balioa kenduko da zerga-oinarritik, harik eta sortutako arazoari bide administratiboan behin betiko ebazpena eman arte.

6. Ahalorde-emailea hil eta gero ahalordeaz edo baimenaz baliatuz erretiratutako ondasun edo baloreen zenbatekoa jaraunspeneko ondasuntzaren zenbateko likidoari gehituko zaio, eta, horrenbestez, interesatuak beharturik daude oinordetzan utzitako ondasunen inbentarioan ondasun horiek sartzera, eta horrek ez ditu libratuko, legezko baldintzez kanpo erretiratzearen ondorioz bereganatuak izan litzaketan erantzukizunetatik.

### **23. artikulua.** Zama- eta karga-kenketa.

1. Heriotzagatik eskurapenetan honako hauek baizik ez dira kengarri izanen: ondasunen gainean zuzenean ezarritako zama edo karga etengabekoak, aldi batekoak nahiz berrerosgarriak, baldin eta haien kapitala eta balioa gutxitzen badute, hala nola zentsu eta pentsioak, eta ez dira halakotzat hartuko eskuratzailearen betebeharrak pertsonaltzat jotzen direnak, ez eta, hipotekak eta bahiturak bezala, eskualdatutakoaren balioaren gutxitzea ez dakartenak, eta horrek ez du ezertan galaraziko horien bitartez bermatzen diren zorretan kenketa egitearen zilegatasuna, hurrengo artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira.

2. Aurkeztutako dokumentuetan pentsio, zama edo karga kengarrien iraupena espresuki jaso ez badago, mugarik gabekoa dela joko da.

3. Zentsuaren baliotzat, kenketarako, honako hau hartuko da: legeria zibilaren arauen arabera berrerosteko eman behar den kapitalarena.

4. Horretarako, pentsioen balioa lortzeko, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatutako diruaren legezko interes-tasaren arabera kapitalizatu behar da eta hortik ateratzen den kapitaletik hartu, usufuktuak baloratzeko arauen arabera, pentsiodunaren adinari dagokion parte, pentsioa bizi artekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, aldi batekoa bada.

#### **24. artikulua.** Kausatzailearen zorren kenketa.

1. Heriotzagatiko eskurapenetan kengarriak izanen dira:

a) Oinordetzaren kausatzailearen zorrak, baldin eta haren heriotzaren datan Prozedura Zibileko Legeak ezarritakoaren arabera exekuzioa berekin dakarren agiri publiko zein pribatu erabat fidagarri frogatzen badira eta hil baino hilabete lehenagoko epean eginak ez badira, kasu horretan haien benetakotasuna frogatzen ez bada.

b) Kausatzailearen aurkako zorrak, baldin eta mailegu pertsonal edo bermedunetatik sortuak eta fedemaile publiko batek kontuhartutako poliza batean jasoak badira. Kenketa egin ahal izateko, jatorrizko poliza edo haren ziurtagiria aurkeztu behar da, non jasoko baita kausatzailearen heriotza-egunean mailegua dela medio haren kontra legokeen saldoa.

c) Oinordetzaren kausatzailearen aurkako zorrak, aurreko bi letretan jaso gabeak, honako beharkizun hauek betetzen badira:

1.<sup>a</sup> Haien existentzia Tributuei buruzko Foru Legeko 107. artikuluan aipatzen diren baliabideez frogatzea.

2.<sup>a</sup> Gainera, zorra oinordekoek agiri publikoan berrestea, hartzekoduna bertan dela, edo, bestela, agiri publikoan ere ordainketa jasoa izatea.

3.<sup>a</sup> Egindako zorra ez dadila ager parte alikuo-taren oinordekoen edo legatu-hartzaileen alde eginik ez eta oinordeko edo legatudun horien ezkontide edo bikote egonkorreko kideen, aurrekoen, ondorengoan edo anai-arreben alde ere.

2. Bereziki kengarri izanen dira kausatzaileak Foru Komunitatearen, Estatuaren, erkidego eutonomen, toki-korporazioen tributuengatik edo Gizarte Segurantzarengatik zor lituzkeenak eta legatu-hartzaile, albazea edo utzitako jaraunspeneko ondasuntzaren administratzaileek ordainduak, heriotzaren ondoren igorritako likidazioei buruzkoak izan arren.

3. Heriotzagatiko eskualdatzeetan kengarriak izanen dira:

a) Oinordekoek nahiz albazeek egindakotzat agertzen diren zorrak, are testamentu egitetik edo abintestatetik sortutako gastu edo bestelako bete-beharretatik eratorriak, salbuespen bakarra izan den delarik foru lege honetako 25. artikuluko a) letran jasoa.

b) Kausatzaileak bere testamentuan nahiz interesatuek jaraunspenean, banaketa-eskrituran edo ondasunen deskribapenekoan onartutako zorrak, non eta haien existentzia ez den frogatzen artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren arabera.

4. Zorrak ez dira kengarriak izanen harik eta haiek jasotzen dituen agiria aurkezten den arte edo haiek eragin dituen egintza Zergaren likidaziora aurkezten den arte.

5. Zorren kenketa bidezko bada eta ez baldin badago eskudirurik haiek kitatzeko, ordainetan edo ordainketarako ondasun-esleipen espresua egiten bada, Ondasun-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritako arauen arabera, esleipen-hartzaileak ordainduko du Zerga, dagokion kontzeptuagatik.

Horretarako, lehenbizi eta iristen deneraino, ondasun higigarriak erabiliko dira, eta horiek eskas badira baizik ez da joko ondasun higiezinietara.

#### **25. artikulua.** Gastuen kenketa:

Heriotzagatiko eskurapenetan kengarriak dira zerga-oinarria zehazteko:

a) Testamentu edo abintestatoa arazotsu bihurtzen denean oinordeko guztien interesaren alde testamentu edo abintestato horien ordezkari legitimoek auzian egindako gastuak, oinordetzan utzitako ondasunak administratzean sortutakoak izan ezik, haiek behar bezala justifikatzen direnean autoen lekukotasun bidez.

b) Azken gaixotasunak, lur-emateak eta hiletak sortutako gastuak, frogatzen diren heinean. Lur-emate eta hiletakoak, gainera, neurrizkoak izan beharko dute oinordetzan utzitako ondasunekiko, bizilekuko usadio eta ohituren arabera.

#### **Hirugarren atala** **Doako "inter vivos" eskurapenetarako** **arau bereziak**

#### **26. artikulua.** Kargen kenketa.

Dohaintzetan eta gainerako kostugabeko "inter vivos" eskurapen parekagarrietan, ondasun eta eskubideen benetako baliotik foru lege honetako

23. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten kargak kenduko dira.

**27. artikulua.** Zorren kenketa:

Dohaintzetan eta gainerako "inter vivos" eskurapen kostugabe parekagarrietan eskuratzaileraren betebeharrak pertsonala diren zorrak izanen dira kengarri eta halaber eskubide errealez bermatuak, ordaintzeko dagoen heinean, baldin eta foru lege honetako 24. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badira eta eskuratzailerak agiri fedemailean hartu badu bere gain zorra ordaintzeko betebeharra, eta horrek guztiak ez du galaraziko, kasua bada, Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arautan xedatutakoaren arabera bidezko den zerga-ordainketa.

**Laugarren atala**  
**Balioen egiaztapena**

**28. artikulua.** Arau orokorrak.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zilegi du, Tributu-uruzko Foru Lege Orokorreko 44. artikuluan ezarritako frogabideen arabera, eskuratutako ondasun eta eskubideen balioa egiaztatzea. Eta gainera beste bide hauek ere erabiltzen ahal ditu:

a) Administrazioak bere esku dituen balantze eta datuak, estatuko edo atzerriko merkatuetan kotizatzen ez duten sozietateetako edo sozietate ez diren enpresetako partaidetzak direnean, zeinen balantzeak erabat indarduntzat joko baitira, ondorio fiskaletarako, enpresaren hurrengo ekitaldi ekonomikoan, agiri bidezko kontrako frogariki baldin bada salbu, eskualdaketen datako balantzea galdatzearen zilegitasuna ezertan galarazi gabe.

b) Subsidiarioki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legean ezarritako balorazio-arauak, Zergaren sorrarazpenaren datari buruzkoak.

2. Tributu-administrazioak aukeran du aipatutako frogabide horietatik zein erabili, baina ez da beharrezko horiez guztiez baliatzea, horietako baten batez lortutakoa benetako balioaren argiztailetzat jotzen denean.

3. Interesatuak, 53. artikulua arabera, aurkeztera beharturik dauden aitortzearen, beharturik dira kargapeko ondare-gehitzearen barnean sartzeko den ondasun eta eskubide bakoitzari sorrarazpenaren datan ematen dioten benetako balioa jasotzera. Balio hori lehenetsiko da egiaztatutakoa baino handiagoa bada.

4. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egiten duen likidazioarekin batera jakinaraziko du balio-egiaztapena.

5. Ondasun-egiaztapenean interesatuek aitortutakoak baino balio handiagoak hautematen badira, haiek zilegi dute aurka egitea, balio berriak kontuan hartuz egiten diren likidazioen erreklamazioetarako ezarritako epe beretan edo peritutasazio kontraesanezkora jotzea, erregelamenduz ezartzen diren modu eta epeetan. Peritutasazio kontraesanezkoaren eskaera aurkezteak egindako likidazioen sarrera etenaraziko du eta baita haien aurkako erreklamazio-epeena ere.

"Inter vivos" eskurapen kostugabeetan, egiaztapen administratibotik sortzen diren balioek tributu-arloko ondorioak izan ditzaketenean eskualdatzaileengan, banan bana jakinaraziko zaizkie, epe berean aurka egin edo peritutasazio kontraesanezkoaren bidez zuzendu ahal ditzaten, eta erreklamazioa nahiz zuzenketa osorik edo hein batez onartzen bada, emandako ebazpena onuragarri izanen da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako subjektu pasiboentzat ere.

**VI. KAPITULUA**  
**Likidazio-oinarria**

**29. artikulua.** Likidazio-oinarria

Zergaren likidazio-oinarria lortzen da zerga-oinarriari Kapitulu honetako eta gainerako legezko xedapenetan jasotakoetatik bidezko diren murrizketak aplikatuz.

**30. artikulua.** "Mortis causa" eskurapenak.

Naturgune babestutzat nahiz Natura 2000 Sareko Komunitatearen interesgunetzat proposatutako lurren jabari osoaren nahiz "jabetza soil"aren "mortis causa" eskurapenek 100eko 95eko murrizketa izanen dute Zergaren oinarrian. Murrizketa berdina egiten zaio usufektuaren iraugitzeari.

**31. artikulua.** Dohaintzak.

Naturgune babestutzat nahiz Natura 2000 Sareko Komunitatearen interesgunetzat proposatutako lurrrin jabari osoaren nahiz "jabetza soil"aren "inter vivos"ko dohaintzek 100eko 95eko murrizketa izanen dute Zergaren oinarrian. Murrizketa berdina egiten zaio eskualdatzaileak bereztat gordetako usufektuaren iraugitzeari.

**32. artikulua.** Aseguruak.

8.c) artikulua aipatzen dituen bizitzaren gaineko aseguruaren kontratuen onuradunek aseguru-entitateetatik jasotako diru-zenbatekoak, 1992ko ekainaren 24a baino lehen gauzatu baziren, hona-

ko murrizketa hauek izanen dituzte zerga-oinarrian:

a) 100eko 90eko murrizketa 3.005,06 eurotik gorako zenbatekoetan, ezkontza bidezko aurrekotasuna nahiz ondorengotasuna denean kontratu-egilearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna.

b) 100eko 50eko murrizketa, albo-ahaidetasunezko bigarren mailakoa denean kontratu-egilearen eta onuraduaren arteko ahaidetasuna.

c) 100eko 25eko murrizketa, albo-ahaidetasunezko hirugarren edo laugarren mailakoa denean kontratu-egilearen eta onuraduaren arteko ahaidetasuna.

d) 100eko 10eko murrizketa, ahaidetasun hori urrunagokoa denean edo ahaidetasunik ez denean.

## VII. KAPITULUA Zerga-zorra

### 33. artikulua. Likidazio-arauak.

1. Kausatzailearen eta kausadunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga dagokie jaraunspenez, legatuz edo beste edozein oinordetza-tituluz "mortis causa" eskuratutakoei.

Kausadunak ezezagunak badira, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifaren arabera eginen da likidazioa, nahiz eta horrek ez duen galarazten nortzu diren jakitean itzulketa egin beharra.

2. Dohaintza-emailearen eta hartzailearen arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga ordaintzea dagokie dohaintzaz nahiz doako eta "inter vivos"ko beste edozein bide juridikoz eskuratutakoei.

3. Aseguruaren kontratu-egile edo hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun-mailaren arabera zerga ordainduko da bizitza-aseguruaren kasuan. Aseguru kolektiboetan eta enpresek beren langileen alde kontratatutakoetan aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunak aginduko du.

### 34. artikulua. Zerga-kuota.

1. Zergaren kuotaren emaitza honela lortzen da: likidazio-oinarriari, aurreko Kapituluaren xedatutakoaren arabera kalkulaturik betiere, jarraian ematen direnetatik aurreko artikuluan xedatutako arri jarraikiz zehaztutako ahaidetasun-mailaren arabera dagokion karga-tasa aplikatuko zaio.

a) Ezkontideak edo bikote egonkorreko kideak, odolkidetasuneko lerro zuzeneko aurreko nahiz ondorengoak, adoptatzaile nahiz adoptatuak:

Karga-tasa: 100eko 0,80.

b) Ezkontza bidezko aurreko eta ondorengoaren eta bigarren eta hirugarren mailako albo-ahaideen "mortis causa" eskurapenak direnean eta berdin 8. artikuluko c) letrak aipatzen duen aseguruaren heriotza-kasurako bizitzaren gaineko aseguru-kontratuaren eskurapenak direnean:

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
7.813,16raino	% 0,80
7.813,16tik gora	Ondoko c) d) eta e) letreren arabera dagokiona

c) Ezkontza bidezko aurreko eta ondorengoak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopurutik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
6.010,12raino	% 6,00
6.010,13tik	12.020,24raino % 7,00
12.020,25etik	30.050,61eraino % 8,00
30.050,62tik	60.101,21eraino % 10,00
60.101,22tik	90.151,82raino % 11,00
90.151,83tik	120.202,42raino % 13,00
120.202,43tik	150.253,03raino % 14,00
150.253,04tik	300.506,05eraino % 16,00
300.506,06tik	601.012,10eraino % 17,00
601.012,11tik	1.803.036,31raino % 18,00
1.803.036,32tik	3.005.060,52raino % 19,00
3.005.060,53tik gora	% 20,00

d) Bigarren mailako albo-ahaideak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopurutik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
6.010,12raino	% 8,00
6.010,13tik	12.020,24raino % 9,00
12.020,25etik	30.050,61eraino % 10,00
30.050,62tik	60.101,21eraino % 11,00
60.101,22tik	90.151,82raino % 13,00
90.151,83tik	120.202,42raino % 15,00
120.202,43tik	150.253,03raino % 17,00
150.253,04tik	300.506,05eraino % 20,00

300.506,06tik	601.012,10eraino	% 23,00
601.012,11tik	1.803.036,31raino	% 26,00
1.803.036,32tik	3.005.060,52raino	% 30,00
3.005.060,53tik gora		% 35,00

e) Hirugarren mailako albo-ahaideak.

b) letrak jasotzen dituen kasuetan letra horrek aipatzen duen kopurutik pasatzen dena honako tasa hauen pean egonen da:

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
6.010,12raino	% 9,00
6.010,13tik	12.020,24raino % 10,00
12.020,25etik	30.050,61eraino % 11,00
30.050,62tik	60.101,21eraino % 13,00
60.101,22 tik	90.151,82raino % 15,00
90.151,83tik	120.202,42raino % 17,00
120.202,43tik	150.253,03raino % 20,00
150.253,04tik	300.506,05eraino % 23,00
300.506,06tik	601.012,10eraino % 26,00
601.012,11tik	1.803.036,31raino % 30,00
1.803.036,32tik	3.005.060,52raino % 34,00
3.005.060,53tik gora	% 39,00

f) Laugarren mailako albo-ahaideak.

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
6.010,12raino	% 11,00
6.010,13tik	12.020,24raino % 12,00
12.020,25etik	30.050,61eraino % 15,00
30.050,62tik	60.101,21eraino % 15,00
60.101,22tik	90.151,82raino % 17,00
90.151,83tik	120.202,42raino % 20,00
120.202,43tik	150.253,03raino % 23,00
150.253,04tik	300.506,05eraino % 26,00
300.506,06tik	601.012,10eraino % 35,00
601.012,11tik	1.803.036,31raino % 38,00
1.803.036,32tik	3.005.060,52raino % 41,00
3.005.060,53tik gora	% 44,00

g) Albo-ahaidetasun urrunagokoak eta arrotzak.

LIKIDAZIO-OINARRIA	Karga-tasa
6.010,12raino	% 11,00

6.010,13tik	12.020,24raino	% 12,00
12.020,25etik	30.050,61eraino	% 14,00
30.050,62tik	60.101,21eraino	% 16,00
60.101,22tik	90.151,82raino	% 18,00
90.151,83tik	120.202,42raino	% 21,00
120.202,43etik	150.253,03raino	% 24,00
150.253,04tik	300.506,05eraino	% 29,00
300.506,06tik	601.012,10eraino	% 36,00
601.012,11tik	1.803.036,31raino	% 40,00
1.803.036,32tik	3.005.060,52raino	% 45,00
3.005.060,53tik gora		% 48,00

2. Aurreko tarifak ez dira gehikorak eta likidazio-oinarri osoari aplikatuko zaizkio.

3. Tasak aplikatu eta gertatzen denean oinarriaren gehikuntzari dagokiola gehikuntza hori baino kuota-zati handiagoa, kuotari soberakin edo diferentzia horren zenbatekoa ofizioz kenduko zaio.

**35. artikulua.** Zerga-ezarpen bikoitzagatikoko kenketa.

Zergadunak bizilekua Espainiako lurraldean duenean, estatuko arauetan ezartzen denaren arabera, honako bi kopuru hauetako txikiaren kenketa egiteko eskubidea izanen du:

a) Zerga honen peko ondare-gehikuntza dela eta, atzerrian ordaindu duen benetako zenbatekoa.

b) Zerga honen benetako batez besteko kargatasa Espainiatik kanpo kokaturiko ondasunei edo gauza daitezkeen eskubideen ondare-gehikuntzari aplikatuzetik sortzen den emaitza, atzerrian antzeko zerga bat ordaindu duenean.

## VIII. KAPITULUA

### Sorrarazpena eta preskripzioa

#### 36. artikulua. Sorrazpena

1. Aseguratua hiltzen den kasurako bizitza-aseguruko kontratuen onuradunek heriotzagatikoko eskurapenetan eta diru-kopuruak jasotzean, edozein modalitatekoak direla ere, kausatzailearen edo aseguruaren heriotza-egunean sorrazaziko da Zerga, edo absentea hildakotzat ematen duen agiria irmo egiten den egunean, Kode Zibileko 196. artikulua arabera. Horrek ez du ezertan galaraziko foru lege honetako 6. artikuluan desgite-baldintzei buruz xedatutakoa, Kode Zibileko 197. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen badira.

2. Dohaintzaz edo "inter vivos" eta kostugabe-ko bestelako negozio juridikoen bidez eskuratutako aririk dagokionez, egintza nahiz kontratua gauzatzeko den egunean sorraraziko da Zerga, eta halakotzat joko da, kontratu-egilea nahiz aseguratua bizirik gelditzen den kasurako bizitza-aseguru baten onuradunak jasotako diru-kopuruen kasuan, onuradunak jaso behar duen lehen diru-kopurua edo bakarria eskatzea daukan eguna.

3. Ondasun edo eskubideen edozein eskurapen bere eragina etenda daukanean baldintza, muga, fideikomiso nahiz beste edozein mugapen dela medio, muga horiek desagertzen diren egunean gauzatzeko joko da, eta une horri begiratuko zaio ondasunen balioa eta karga-tasa zehazteko.

### **37. artikulua.** Preskripzioa.

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren preskripzioa Tributuei buruzko Foru Legeko 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arauen pean dago.

2. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, preskripziorako, likidaziora aurkezten diren agirien kasuan aurkezpen eguna joko baliozkotza pribatuetan, non eta lehenago gertatzen ez den Kode Zibileko 1227 artikuluan jasotako kasuetakoren bat; izan ere, orduan inkorporazio, inskripzio, heriotza edo entregatze-data izanzen baitira baliagarri, hurrenez hurren. Agiri bidez jaso gabeko kontratuetan, ondorio horietarako, interesatuek foru lege honetako 53. artikuluan ezarritakoa betetzen duten eguna hartuko da baliagarritzat.

3. Uko-egitearen ondoriozko eskurapenak kargatzen dituen zerga likidatzeko preskripzio-epaia, foru lege honetako 44. artikuluen arabera, ukoaren datatik aurrera hasiko da kontatzen, eta, ondorio fiskal horietarako soilik, ez da aplikagarri izanzen Kode Zibileko 989. artikuluan eta Konpilazio 315.ean xedatutakoa.

## **IX. KAPITULUA** **Arau bereziak**

### **Lehen atala** **Xedapen orokorrak**

**38. artikulua.** Usufruktu, erabilera eta bizilekurako eskubidea.

1. Usufruktua, erabiltzeko, bizitzeko eta jabetza soilerako eskubideak baloratzeko, honako erregelok aplikatuko dira:

a) Aldi baterako usufraktuaren balioa gozagai diren ondasunen gutzitako balioaren ehuneko jakin bat izanzen da, usufraktuaren iraupenaren arabe-

rakoa. Hala, usufruktuak bost urte edo gutxiago irauten bada, ehuneko hamar izanzen da, eta hortik gorako urte bakoitzeko, ondasunen gutzitako balioaren ehuneko bi gehituko zaio. Nolanahi ere, inoiz ez da izanzen ondasunen gutzitako balioaren ehuneko hirurogeita hamar baino handiagoa.

b) Biziarako usufruktuetan, balioa ondasunen gutzitako balioaren 100eko 70 izanzen da, usufruktudunak 20 urte baino gutxiago izanez gero, eta hortik gorako urte bakoitzeko 100eko 1eko proportziora txikituko da. Gutxieneko muga gutzitako balioaren 100eko 10 izanzen da.

c) Jabetza soilaren balioa usufruktu, erabilera eta bizilekuaren balioaren eta ondasunen gutzitako balioaren arteko aldearen arabera kontatuko da. Aldi berean biziarakoak eta aldi baterakoak diren usufruktuetan, jabetza soil baloratzeko, aurreko erregelatik hari baliorik txikiena ematen dion erregela aplikatuko da.

d) Usufruktua pertsona juridiko batentzat eratu bada, a) eta c) letretako erregelak aplikatuko dira pertsona fisiko bati eratzitako jabetza soilaren balioa zehazteko. Usufraktuaren iraupena zehaztugabea denean, usufraktuari ondasunei egotzitako gutzitako balioaren 100eko 60ko balioa emanen zaio.

e) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealeko balioa zehazteko, eskubide horiek dagozkien ondasunen balioaren 100eko 75i aplikatuko zaizkio, kasuen arabera, aldi baterako edo biziarako usufruktuak baloratzeko erregelak.

2. Eskuratzailerak ondasunak baliatzeko ahalmena izanez gero, jabari osoagatik likidatuko da Zerga, bidezkoa izan litekeen itzulketaren kalterik gabe.

3. Usufrukturako, erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak eskuratzen direnean, eskuratzailerari eskatuko zaio Zerga, haren eskurapen-tituluaren izaera juridikoaren arabera, eta eskubide horien balioa oinarri harturik.

4. Jabetza soilaren eskuratzailerari, berriz, eskurapen-tituluaren izaera juridikoaren arabera eskatuko zaio Zerga, jabetza soilaren balioa oinarri hartuta, eta ondasunen balio osoari dagokion tasa aplikatuko da.

Aurrean aipatutako likidazioaren kalterik gabe, usufruktua iraugitzean, lehenbiziko jabe soilak, eskurapen-tituluaren indarrez, usufraktuaren iraugipenagatik ordaindu behar du, jabetza soil eskuratzeko zergarik likidatu ez zitzaion ehunekoaren gainean. Ehuneko hori jabaria kontsolidatzen unean ondasunek zuten balioari aplikatuko



zaio, orduan indarra izan zuten tarifei loturik eta ondasunen balio osoari dagokion tasaren arabera.

Usufruktua iraungitzean lehenbiziko jabe soilaren titulua egiaztatzen ez bada, iraungipenaren zerga-ondorioei begira, titulua arrotzen arteko jaraunspentzat joko da.

Aurreko idatz-zatietan jabe soilari ezarri zaizkion betebeharrak jabetza soilaren eskuratzaille-enganaldatuko dira beti, eta, usufruktua iraungitzen denean, lehenbiziko jabe soilak ordaindu behar zukeena ordaindu beharko dute.

5. a) Usufruktua edo jabetza soila eskualdatuz gero, beste likidazio bat eginen da. Hartan, aurreko erregelen arabera baloratuko da usufruktua edo jabetza soila eta kontuan hartuko da eskualdatzailearen eta eskuratzaillearen arteko lotura juridikoa, aurreko idatz-zatietan xedatutakoaren arabera bidezkoak izan litezkeen likidazioak gorabehera.

b) Usufruktudunak bere eskubidea jabe soilari eskualdatzen badiu, bigarrenari eskatuko zaizkio jabariaren zatiketarik ordaindu beharreko likidazioetan handiena eta usufruktua eskuratzeko bide ematen dion negozio juridikoari dagokiona.

Jabe soilak bere eskubidea usufruktudunari eskualdatzen badiu, edo biok hirugarren bati eskualdatzen badiote, eskurapen horiei dagozkien likidazioak baizik ez dira eskatuko.

c) Onartuta dagoen usufruktuari uko egitea, uko egite huts eta soila izan arren, usufruktudunak jabe soilari egiten dion dohaintzat hartuko da zergen ondorioetarako, eta aurreko b) letran xedatutakoa aplikatuko da.

6. Elkarren segidako usufruktuetan jabe soilari Zerga eskatzeko, ehunekorik handieneko usufruktua hartuko da kontuan, eta, usufruktu hori iraungitzean, jabe soilak ondokoengatik ordainduko du: ehuneko txikiagoko usufruktua hastearrekin batera jabetza soilaren balioak izan duen balio-igoerarengatik; sendotze partzialaren tituluagatik, baldin eta ehuneko handieneko usufruktua lehenbizikoa izan bada; eta baldintza etengarria bete edo epea bukatzeagatik, geroagokoa izan bada. Eta horrela, hurrenez hurren, gainerako usufruktuak iraungitzean.

7. Usufruktudunaren bizitza ez den baldintza suntsiarazlearekin eratzen bada usufruktua, biziarteko usufruktuetarako aurreko idatz-zatietan ezarritako erregelak hartuko dira kontuan likidazioa egiteko. Hala ere, baldintza suntsiarazlea beteta, beste likidazio bat eginen da, aldi baterako usufruktuarako ezarritako erregelen arabera, eta haren indarrez bidezko zuzenketak eginen dira

Foru Komunitatearen edo interesatuaren mesedetan.

8. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak iraungitzean, Zerga eskatuko zaio usufruktudunari, usufrukturik badago, haren balio-igoerari dagokion heinean; eta, usufrukturik ez badago, jabe soilari eginen zaio eskubide horiek iraungitzeari dagokion likidazioa. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubideak baino lehenago usufruktua iraungitzen bada, jabe soilak likidazioa ordainduko du usufruktu-eskubidearen iraungipenak eragindako kontsolidazio partzialagatik, horren bidez beraren jabetza soilak izandako balio-igoerari dagokion heinean.

### **39. artikulua.** Pentsioak.

1. Doan eratzen diren pentsioak direla-eta, pentsiodunak pentsioaren eratzaillearekin duen ahaidetasunaren arabera ordainduko da Zerga. Horrelako pentsioak foru lege honetako 23.4 artikuluko erregelen arabera baloratuko dira.

2. Testamentuz eratzen diren pentsioak direla-eta, horrelako pentsio bat iraungi eta jaraunspen bidez utzitako ondasuntzak haren kapitala galtzen duenean, pentsioaren kapitalari dagokion Zerga ordaindu behar du ondasunaren eskuratzailleak, pentsioa eratu zenean indarrean zegoen tarifaren arabera.

3. Ondasun edo eskubideen lagapenaren truke eratzen diren pentsioak direla eta, eskualdatzailea pentsioduna bera ez bada, bien arteko ahaidetasun mailari dagokion tarifaren arabera ordainduko da Zerga.

### **40. artikulua.** Beste figura batzuk.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagozkion balorazio-erregelak erabiliko dira doako kontratu eta zentsuetako agintza eta aukerak eratzen direnean. Transakzioetan, ondasun edo eskubide auzi-gaiak esleitu, deklaratu edo aintzatesten diren tituluaren arabera likidatuko da Zerga.

### **Bigarren atala** **"Mortis causa" eskurapenak**

#### **41. artikulua.** Banaketa.

1. Jaraunspenezko oinordetzetan, interesatuek beren artean egiten dituzten banaketak eta esleipenak egiten dituztela ere, Zergaren ondorioetarako uste izanen da hainbanaketa egin dutela eta oinordetzari buruzko arauak bete dituztela, berdin dio ondasunak zergapekoak izan, zerga ordaindu beharretik salbuetsiak izan nahiz hobaridunak. Beraz, balioak egiaztatzean azaltzen diren igoe-

rak eskuratzailerako edo jaraunselearen artean hainbanatutako dira.

2. Testamentugile batek norbaiti berariaz utzitako ondasunak edo jaraunspena ez den bidetik norbaiti esleitu zaizkion ondasunak egiaztatzen direnean haien balioaren igoera azaltzen bada, edo ondasunoi zerga-loturarik eza, salbuespena edo hobaria aplikatu behar bazaie, igoerak edo gutxitzeak ondasunen eskuratzailerari soilik eraginen dio.

#### **42. artikulua.** Gehiegizko esleipenak.

Jaraunspenezko oinordetzetan, jaraunsele edo legatadunetako bati esleitzen zaizkion ondasunen balio deklaratuak berak hartu behar duena baino handiagoa bada eta soberakina gainerako jaraunseleari eskudirutan ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, berak ordainduko du esleipenari dagokion Zerga, hartu duen soberakinaren neurrian, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauari jarraituz; baina gainerako jaraunseleek ere Zerga ordaindu beharko dute, bakoitzak jaraunspenean esleitu zaion kopuruaren arabera.

#### **43. artikulua.** "Mortis causa" dohaintzak.

"Mortis causa" dohaintzak eta kidekoak egiten direnean, ondasun-mota edozein izanda ere, jaraunspenetan bezala ordainduko da Zerga, zenbatekoaren arabera eta dohaintza-ematearen eta dohaintza-hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, baldin eta, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 166. legeari jarraituz, dohaintza ondasunak emanez egiten bada, "inter vivos" dohaintzetan bezala ordainduko da Zerga.

#### **44. artikulua.** Jaraunspenari uko egitea.

1. Kode Zibilarren 1.000. artikuluko 3. zenbakiaren azken zatian adierazitako moduan, jaraunspenari uko egiten ahal zaio, uko egite soil eta doakoan, uko-egilearen zatia hartuko duten jaraunseleek guztien mesedetan. Horrelako ukoa ez da zergapeko egintza; hala ere, bai kasu honetan eta bai uko egite soil eta doakoaren bidez norberaren legatua jaraunseleek guztientzat uzten denean ere, ukoaren onura jasotzen duten pertsonen Zerga ordaindu behar dute uko-egilearen zatia eskuratzegatik, uko-egileak jaraunspenen eskalan aplikatu behar zukeen tasaren arabera, salbu eta, kausatzaileak ukoaren onuradunarekin duen ahaidetasunaren zioz, onuradunari tasa handiagoa dagokion kasuetan.

Kode Zibilarren 1.000. artikuluan ageri diren gainerako uko-kasuetan, uko-egileari jaraunspenagatik Zerga eskatuko zaio, eta gainera, bidezkoa bada, likidazioa eginen da uko egindako zatia lagapen edo dohaintzagatik.

2. Jaraunspen edo legatuari dagokion Zerga behin preskribatu eta gero, hura zapuzten bada edo uko egiten bazaio, Zergaren ondorioetarako, zapuztaile edo uko-egileak zapuzketa edo ukoaren onura jasotzen duenari dohaintza egin balio bezala joko da.

#### **45. artikulua.** Ordezpenak.

1. Ordezpen arruntetan ordezkoari soilik eskatuko zaio Zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasun-mailari erreparatuta, baldin eta eraturako jaraunsele kausatzailea baino lehen hiltzen bada edo jaraunspena onartzerik ez badu. Jaraunspena onartu nahi ez badu, ukoari buruz xedatutakoari etsiko zaio.

2. Kode Zibilean azaltzen diren ordezpen pupilarrean eta ereduazkoan, ordezkoari eskatuko zaio Zerga, ordezpena egiten denean, ordezitutako ondorengoarekin duen ahaidetasun mailaren arabera. Hala ere, kontuan hartuko da ondorengo horrek testamentugilea hildakoan ordaindutakoa.

3. a) Fideikomisozko ordezpenetan, Zerga ordainduko da bai eraketan eta bai ordezpen bakoitzean, ordezkoak kausatzailearekin duen ahaidetasuna kontuan harturik, eta foru lege honetako 36.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

b) Kontzeptu hori dela bide eraturako jaraunseleek ez badute eskubiderik, ez "inter vivos" egintzen bidez ez heriotzaren zioz, ordezpenari loturik dauden jaraunspeneko ondasunak baliatzeko, orduan usufuktudun soilizat hartuko dira.

c) Ondasun horiek baliatzeko ahalmena nahibadako baldintza bati loturik badago eta baldintza hori betetzea jaraunsele, albazea, kontulari-banatzailerako edo testamentuan berariaz izendatutako beste pertsonaren baten esku badago soil-soilik, ondasunen jabetza osoagatik eginen da likidazioa. Hala ere, jaraunselearen eskubidedunek beren kausatzaileak ordaindutako Zergaren itzulketa eskatzen ahalko dute, jabetza soilari dagokion zatian; horretarako frogatu egin beharko dute baldintza bete dela eta ordezpenari loturiko ondasunak oso-osorik eskualdatu zaizkiola izendatutako ordezkoari.

d) Aurreko letrako xedapena bete beharrekoa izanen da, halaber, testamentugileak jaraunseleari baimena ematen dionean ondasunak baliatzeko, horien premia izanez gero, eta aurretik bere onda-

sunak besterendurik, berdin dio premia frogatu beharra ezartzen dion edo ez; bai eta baimen hori jaraunsekide, albazea edo kontulari-banatzailleak edo testamentugileak berariaz izendatutako beste pertsonaren batek ematen dutenean ere.

Itzulketa bidezkoa izan dadin, gainera, horrela koetan egiaztatu egin behar da ordezenari loturik dauden jaraunspeneko ondasunak oso-osorik eskualdatu zaizkiola ordezkoari.

4. Artikulu honetan xedatutakoa legatuen ordezenetan ere aplikatu behar da.

#### **46. artikulua.** Fideikomisoak.

1. Fideikomisoetan, likidazioa egin behar den epeetan fideikomisozko jaraunselea ezaguna ez bada, fiduziarioak ordainduko du Zerga, arrotzen arteko jaraunspenatarako ezarritako tasen arabera, kausatzailearekin duen ahaidetasuna edozein delarik ere.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera ordaindutakoak fideikomisosodunari mesede egingo dio, fideikomisoduna ezaguna bada. Berari dagokion tarifa fiduziarioari aplikaturikoa baino txikiagoa bada, gehien ordaindu duenak edo beraren kausadunek eskubidea izango dute ordaindutako soberakina itzul dakien.

3. Likidazioa egiteko epeetan jaraunsele fideikomisoduna ezagutzen bada, beronek Zerga ordainduko du kausatzailearekin duen ahaidetasun mailari dagokion jaraunspen-eskalaren arabera eta eskuratutako ondasunen balioaren arabera.

4. Fiduziarioak, edo testamentugileak jaraunspena eskualdatzeko agindu dion pertsonak, ondasunak osorik edo zati batean, aldi baterako edo bizitza osoan gozaten ahal baditu, edo fideikomisozko jaraunseleari eman arte ondasunen errentak edo produktuak baliatzeko ahalmena badu, usufruktudun gisa ordainduko du Zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasun mailaren arabera. Kasu horretan, fideikomisosodunak ordainduko du, halaber, dagokion Zerga, ondasunez jabetzen denean, eta ez da beraren mesedetan konputatuko fiduziarioak ordaindutakoa.

5. Fideikomisoetan, jaraunsele fiduziarioari jaraunspeneko ondasunak jabetzan uzten bazaizkio, kargaren bat kendu behar bada ere, Kode Zibilarren 788. artikuluan xedatu bezala, jaraunspen bidez jabetza eskuratzegatik likidatuko da Zerga. Horrelakoetan, karga kenduko da, kendu ahal bada, eta horregatik Zerga ordainduko du jaraunseleari ezarritako kargaren ondoriozko onura eskuratzen duenak, ezaguna bada, egintzari juridikoki dagokion tituluarengatik edo kontzeptuarengatik; onuraduna ezaguna ez bada, jaraunseleak

ordainduko du kontzeptu horri dagokion Zerga, eta foru lege honetako 15. artikuluan aintzatetsitako eskubidea erabili ahal izanen du.

Fideikomisoetan kontuan hartuko da, fideikomisosodunari dagokion likidazioa egiteko, foru lege honetako 36.3 artikuluan xedatutakoa.

#### **47. artikulua.** Konfiantzazko heredamendua.

Konfiantzazko heredamendua, Konpilazioko II. Liburuko XII. Tituluan arautu dena, fideikomisoztat joko da Zergaren ondorio guztietarako.

#### **48. artikulua.** Erreserbak.

1. Ondasun erreserbagarrien jaraunspenak direla-eta, Konpilazioko 274. legean eta hurrengoetan, 177.ean eta 179.ean eta Kode Zibileko 811. artikuluan xedatutakoaren arabera, erreserba-gordetzailleak ordainduko du Zerga, usufruktudun gisa; baina erreserba iraungitzen bada, erreserba-gordetzailleak jabetza soilari dagokion Zerga ordaindu beharko du; halakoetan 36.3 artikuluko xedapena aplikatuko da, eta bai, egoki denean, 46. artikuluko xedapena ere.

2. Kode Zibileko 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan arautzen den erreserba arrunta egiten denean, erreserba-gordetzailleari Zerga likidatuko zaio jabari osoagatik. Hala ere, eskubidea izanen du erreserbapeko ondasunen jabetza soilagatik ordaindu duena itzul dakion, ondasun horiek edo berorien subrogatuak erreserba-hartzaileari eskualdatu izana frogatzen badu.

3. Erreserba-gordetzailleak, balizko erreserba-hartzaile guztiak ados daudelarik, erreserbapeko ondasunak besterentzen baditu, Zergaren ondorioetarako erreserba iraungitzat joko da eta likidazioa eginen da kontzeptu horrengatik.

4. Erreserba-hartzaileak jaraunspenatarako eskalaren arabera ordainduko du Zerga, 36.3 artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, eta ondasunak utzi dituen pertsonarekin duen ahaidetasun mailaren arabera, baina kontuan hartu gabe erreserba-gordetzaillearekin izan dezakeen ahaidetasun maila.

### **Hirugarren atala**

#### **"Inter vivos" eskurapen doakoak**

**49. artikulua.** Kostubidezko dohaintzak eta ordain gisa ematen direnak.

1. Kostubidezko eta ordainezko dohaintzek kontzeptu horiengatik eta beren zenbateko osoa kontuan harturik ordainduko dute Zerga. Elkarrentzako prestaziorik badago edo dohaintza-hartzaileari kargarik ezartzen bazaio, diferentziari dagokion Zerga baizik ez da ordainduko kontzeptu

horrengatik. Horrez gain, bidezkoa bada, bateratzen diren prestazioengatik edo kargak ezartzeagatik ere zerga ordainduko da.

2. Biziarteko edo aldi baterako pentsioen truke ondasunik lagatuz gero, dohaintzetan bezala ordainduko da Zerga, ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiarengatik, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauekin bat etorririk.

**50. artikulua.** Doteak eta zuzkidurak.

Doteak eta zuzkidurak dohaintzat hartuko dira Zergaren ondorioetarako. Doteak eta zuzkidurak dohaintzat hartuko dira Zergaren ondorioetarako. Biziarteko edo aldi baterako errenta edo pentsioa ordainduz gauzatzen baldin badira, 39. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**51. artikulua.** Dohaintzen metaketa.

Dohaintza-emaile batek dohaintza-hartzaile bati egiten dizkion dohaintzak eta horien pareko "inter vivos" eskualdaketak, hurrenez hurren egiten badira batetik bestera hiru urteko epea iragan baino lehen, eskualdaketa bakartzat joko dira Zergaren likidazioan, eta aplikatu behar zaizkien tasak oinarri guztien baturaren arabera zehaztuko dira.

**52. artikulua.** Dohaintzen eta jaraunspenaren metaketa.

Dohaintzak eta horien pareko "inter vivos" eskualdaketak metatu ahal izanen dira dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearentzat kausatzen duen jaraunspenarekin batera, baldin eta honen eta haien artean gehienez hiru urteko epea iragaten bada, eta eskurapen bakartzat joko dira aplikatu beharreko tasa zehazteko orduan.

**X. KAPITULUA**  
**Formazko betebeharrak**

**53. artikulua.** Aitorpena.

Subjektu pasiboek zerga-aitorpena aurkeztu behar dute foru lege honetan arautu diren zergapeko egintzen berri emateko. Aitorpenaren edukia eta hura aurkezteko epeak eta bideak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Administrazioak baimena ematen ahal du aitorpena aurkezteko epea luzatzeko, arau bidez zehazten den moduan.

**54. artikulua.** Agiriaren aurkezlea.

Agiriaren aurkezlea, hori egiteagatik, Zerga ordaindu behar dutenen mandataria izango da eta, hortaz, aurkeztu duen aitorpenari buruz egi-

ten zaizkion jakinarazpenek, bai balioak egiaztatzearen bai egiten diren likidazioen gainekoek, eta izenpetzen dituen eginbideek, interesatuek onetsiko zituztenen balioa izango dute eta ondorio berdinak sortuko dituzte.

**55. artikulua.** Agintari, funtzionario eta norbanakoen betebeharrak.

1. Epai-organoek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari hilero bidaliko diote betearazitako epaitzen edo epai irmoen zerrenda, baldin eta berauetatik ondorioztatzen bada Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapean dagoen ondare-gehikuntzaren bat dagoela.

2. Erregistro Zibileko arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari hilero, lehenengo hamabostaldian, aurreko hilabetean hildakoen izenen eta helbideen zerrenda bidaliko diote.

3. Notarioek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eman behar dizkiote beraiek beren egin-kizunak burutzeko esku hartu duten egintzei buruz eskatzen dizkien datuak, eta dohainik luzatu behar dituzte, hamabost eguneko epean, hark eskatuz gero, eskuetsi dituzten edo beren protokoloetan sartu dituzten agirien kopiak, 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34 eta 35. artikuluetan aipatzen diren agiri publikoen kasuan izan ezik; eta senar-emazteen kontuei buruzkoak ere bai, ezkontza-sozietatearen ekonomia-araubideari dagozkionak izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian bidali beharko dituzte aurreko hiruhilekoan eskuetsitako agiri guztien zerrenda eta aurkibidea, baldin eta haiek Zergaren peko egintzak diren ondare-gehikuntzak ekartzen ahal dituzten egintzei edo kontratuei buruzkoak badira. Gainera, epe berean bidali beharko dute arestian adierazitako edukia duten agiri pribatuen zerrenda, baldin eta berauek ezagutzeko edo sinadurak legebidezatzeko aurkeztu bazaizkie.

4. Epai-organoek, finantza-bitartekariak, elkar-teek, fundazioek, sozietateak, funtzionarioek norbanakoek eta beste erakunde publiko edo pribatu guztiek ez dute erabakiko ondasunak beraien titularrak ez direnei ematea, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik egiaztatzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena eman ezean.

5. Aseguru-erakundeek ezin likidatu edo ordainduko dituzte pertsona baten biziaren gainean itundutakoak, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena eman ezean.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, zehapena jarriko da foru lege honen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzioko organoen kasuan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gertaerak jakinarazi ahal izango dizkio Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari, Fiskaltzaren bidez, ondorio egokietarako.

**56. artikulua.** Ordainketa, salbuespena edo loturarik eza ez frogatzeak dakartzan ondorioak.

Zerga honen kargapean dauden egintza edo kontratuak agerrarazteko egiten diren agiriak bulego edo erregistro publikoetan onartu daitezzen eta ondorioak izan ditzaten, Zerga ordainduta dagoela, edo salbuespena nahiz ordaindu beharrik ez dagoela frogatu beharko da, salbu eta hipotekei buruzko legerian aurreikusitako kasuetan eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena ematen duen kasuetan. Epaitegi eta auzitegiek departamentu horretara bidali behar dituzte onartzen dituzten agirien kopia egiletsiak, baldin eta agiriok likidaziorako aurkeztuak izanaren oharrak ez badute.

## **XI. KAPITULUA** **Zergaren kudeaketa**

**57. artikulua.** Eskumena:

1. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta biltzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio.

2. Nafarroako Gobernuak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga likidatu eta ordaintzeko prozedurak arautu ahal izanen ditu, baita, egoki denean, autolikidaziorako araubidea ere, zeina orokorki nahiz balizko berezietarako ezar baitaiteke.

**58. artikulua.** Likidazio partzialak.

1. Foru lege honetako 8.c) artikuluan aipatutako aseguruetan eta jaraunspenezko oinordetzetan interesa dutenek Zergaren likidazio partziala egiteko eskatu ahal izanen dute, soil-soilik bizitza aseguruak, kausatzailearen kredituak eta kausatzaileak sortu bai baina jaso ez dituen hartzekoak kobratzeko, gordailuan dauden ondasunak, balioak, efektuak edo diruak jasotzeko eta antzeko helburuetarako.

2. Arau bidez zehaztuko dira likidazio horiek egiteko era eta epeak eta interesatuek bete beharreko baldintzak, diru-kopuruak kobratu edo gordailutatutako dirutzak edo ondasunak jaso ahal izateko.

Aurreko idatz-zatian adierazitako bizitza-aseguruak kobratzeko egiten diren likidazio partzialetan kontuan hartuko dira foru lege honetako III. Kapituluaren aurreikusitako salbuespenak, bertan ezarritako baldintza eta mugekin.

3. Likidazio partzialak dena-delako jaraunspenezko oinordetzari dagokion behin betiko likidazioaren konturako sarreratzat joko dira.

**59. artikulua.** Likidazioa geroratzea.

Ondokoak gertatzen direnean likidazioa geroratu eginen da:

a) Egintza edo kontratuaren baldintza etengarriren bat dagoenean, foru lege honen 6. artikuluaran araberak.

b) Kreditu ez-likidoak edo zenbateko ezezaguneko kredituak kosturik gabe eskuratzen direnean, kredituok likidoak izan arte, arau bidez zehazten den eran.

c) Eskurapenaren zenbatekoa garbi zehazterik ez dagoenean, zenbatekoa zehazten den eguna arte; egun horretatik aurrera berriz ere zenbatuko da likidazioa eskatzeko epea.

d) Eskurapenaren zenbatekoa garbi zehazterik ez dagoenean, zenbatekoa zehazten den eguna arte; egun horretatik aurrera berriz ere zenbatuko da likidazioa eskatzeko epea. Letra honetan xedatutakoak ez dio kalterik eginen fideikomiso hutsei buruz xedatutakoari.

**60. artikulua.** Zergaren ordainketa.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan egiten diren likidazioak Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritako epeetan ordaindu behar dira.

**61. artikulua.** Ordainketa geroratzea eta zatikatzea.

1. Hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe, aplikagarriak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-bilketari buruzko Erregelamenduan ordainketa geroratu eta zatikatzeari buruz ezarritako arauak.

2. Foru lege honetako 8.c) artikuluan aipatzen diren bizitza aseguruetan, baldin eta horien zenbatekoa errenta gisa hartzen bada, onuradunak hala eskatuz gero, Zerga zatika ordainduko da, pentsioa zenbat urtetan jasotzen den, hainbat urtetan, aldi baterako errenta bada, edo hamabost urtetan, gehienez ere, biziarteko errenta bada. Hori horrela izanen da erreskate-eskubidea baliatzen ez den artean.

Geroratze horrengatik ez da inolako kauziorik jartzeko eskatuko, eta ez da inolako korriturik sortuko.

Pentsioa iraungitzen denean, ordaindu gabe dauden zatiak ez dira ordainaraziko; baina erreskaterako eskubidea baliatzen bada bai, ordaindu egin beharko dira.

Arau bidez zehaztuko da artikulua honetan xedatutakoa aplikatzeko prozedura.

## **XII. KAPITULUA**

### **Arau-haustea eta zehapenak**

**62. artikulua.** Zehapen-araubidea.

Foru lege honetan arautu den Zergaren eremuko arau-haustea Zergei buruzko Foru Lege

Orokorrean eta hura garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

### **Xedapen gehigarria**

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Nafarroako Foru Komunitateko jabetzaren erregistratzaileei eginkizunak ezarri ahal izanen dizkie Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa eta likidazioaren arloan, eta haiekin akordioak sinatu ahal izanen ditu eginkizun horiei buruz.

### **Azken xedapena**

Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

### **3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Urtarrilaren 13ko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen 3/2003 Foru Dekretua, deituko den hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea, abenduaren 14ko 13/2000 Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 12. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak esku ematen dion Nafarroako Gobernuari behar diren arau behin-behineko guztiak emateko Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta Estatuaren araudi substantibo eta formazko beraren arabera gobernatu behar diren tribuetaarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Foru Komunitateak eta Estatuak 1990eko uztailaren 31n sinaturiko Hitzarmen Ekonomikoak ezartzen du Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko orduan, araubide fiskal komunean eta Nafarroako foru araubidean finkatzen diren oinarrizko printzipio eta funtsezko eta formazko arauak ildo beretik jo behar dutela.

Beste alde batetik, Balio Erantsiaren Zergaren gaineko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian, martxoaren 7ko 3/2002 Foru Legearen bidez onetsitako testuaren arabera, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergapetzearen araubide berriari egokitzeko Hitzarmenean ezarritakoa betetzeko behar diren behin-behineko arauak emateko.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legean zenbait aldaketa egin dira, araubide komunean. Horietako batzuk Europako Batasuneko araudiari egokitze aldera egin dira eta beste batzuk, berriz, aldaketa teknikoak dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legean egindako aldaketa gehienak barne-zuzenbidea Europako Batasunak merkataritza elektronikoaren, irradi-difusio

eta telebista zerbitzuen eta fakturazioaren inguruan emandako zuzentarauei egokitzeko izan dira. EB/38/2002 Zuzentarauei aplikatzeko asmoz, merkataritza elektronikoaren inguruko zerbitzuak ematen dituzten Batasunetik kanpoko operatzaile jakin batzuei aplikatu beharreko araubide berezia ezartzen da eta, bestetik, merkataritza elektronikoaren eta irradi-difusio eta telebista zerbitzuei aplikatu beharreko lokalizazio arauak finkatzen dira. Fakturazioaren inguruko xedapenei dagokiernez, EB/115/2001 Zuzentarauei oinarrizko ildoak jasotzeko beharrezko diren egokitzapenak egin dira, gero batean erregelamendu bidez garatzeko aukera ematen dutenak, hartan ezarritakoa gure zuzenbide-arauetan biltzeko. Aipatu zuzentarauei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren fakturazioaren edukia eta baldintzak Europako Batasunaren eremuan harmonizatu eta sinplifikatzeko asmoz eman zen.

Neurri horiez gainera, hainbat hobekuntza tekniko sartzeko Zergan, aipagarrienetariko bat nekazaritza, abeltzaintza et arrantzaren araubide bereziari dagokiona.

Balio Erantsiaren gaineko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean sartutako aldaketen helburua araubide komunean sartutakoak jasotzeko bidea erraztea da.

Horregatik guztiagatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarri hartan adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Parlamentuak onetsi bitartean Nafarroan behin-behineko aplikatuko diren arauak ematea, foru dekretu baten bidez. Behin-behineko arauok Parlamentura igorri beharko dira, onartu ondoko hamar eguneko epean.

Hori horrela, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hiruko urtarrilaren hamahiruan egin bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.-** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira. Hona hemen haien testu berria:

Bat. 8.2.7. artikulua.

"7. Informatika produktu normalizatu baten hornidura, edozein delarik euskarri materiala.

Horren ondorioetarako, informatika produktu normalizatutzat hartuko dira edozein erabiltzailek erabiltzeko moduan izateko funtsezko aldaketarik behar ez dutenak."

Bi. 9.1.c) artikulua.

"c) Ondasun korporalen atxikipena sektore batetik beste batera aldatzea, alegia, kasuko enpresa edo lanbide jarduerari ez dagokion beste batera.

c) letra honetan autokontsumoari buruz adierazitakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

– Indarra duen arautegia aldatzearen ondorioz, jarduera ekonomiko batek beste sektore batera igaro behar baldin badu nahitaez, hau da, lehen integratua zegoen sektoreaz beste batera.

– Jarduera ekonomiko jakin bati aplikatu beharreko tributazio araubidea aldatzen denean, zehazki, araubide orokorretik araubide berezi erraztura, nekazaritza, abentzaintza eta arrantzaren araubidera, baliokidetzaren errekararen araubidera edo inbertsioko urte bidezko eragiketen araubidera, eta alderantziz, are aukeratzeko esku-bidea baliatzearen ondorioz gertatzen bada ere.

Aurreko bi lerroaldeetan adierazitakoa aplikatuko da ondoko hau galarazi gabe:

– Foru Lege honen 47, 51, 52, 53, 55, 56, 58 eta 59. artikuluetan ezarritako kenkarien erregulazioak.

– Erositako ondasun eta zerbitzuetarako aurreikusitako destinoaren arabera hasiera batean egindako kenkarien zuzenketari buruz, Foru Lege honen 45. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren aplikazioa, haien benetako destinoa aurreikusitakoa ez beste bat denean, hori guztia inbertsio ondasunak ez diren ondasun edo zerbitzuak erosi edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuoten kasuan, baldin eta ondasun edo zerbitzu horiek enpresa edo lanbide jardueran ez badira deus ere erabili, hasiera batean -hots, kuotak ordaindu zirenean- erabili behar zireneko jarduera ekonomiko hori beste sektore berezitu batera igarotzeagatik.

– Foru Lege honen 79.bis eta 100. artikuluetan ezarritakoa, hurrenez hurren baliokidetzaren errekararen edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziak aplikatzen hasteko edo amaitzeko kasuei dagokienez.

Foru Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek dira enpresa edo lanbide jardueren sektore berezituak:

a) Egiten diren jarduera ekonomikoak eta aplikatzen diren kenkarien araubidea ezberdinak dituztenak.

Jarduera ekonomiko ezberdinak dira Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen talde ezberdinetan daudenak.

Aurreko lerroaldean adierazitakoa gorabehera, jarduera osagarriak ez dira jarduera aldatutzat hartuko, baldin eta jarduera osagarriaren aurreko urteko eragiketen bolumena guztirakoaren % 15etik beherakoa bada eta, gainera, hartan laguntzen baldin badu. Aurreko urtean jarduera osagarriak ez bada egin, ehuneko hori aplikatuko da subjektu pasiboaren arazoizko aurreikuspenen arabera, deusetan galarazi gabe bidezko erregulazioa, benetako ehunekoak aipatu muga gainditzen baldin badu.

Jarduera osagarriak jarduera nagusiaren araubide berberaren menpe egonen dira.

a) letran aipatzen diren kenkari-araubideak ezberdinak direla joko da, baldin eta Foru Lege honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatzen diren kenkari ehunekoen artean, hau da, jarduera nagusiari eta jarduera osagarriari aplikatu beharreko kenkarien arteko diferentzia, % 50 edo handiagoa den kasuetan.

Jarduera nagusiak, horren jarduera osagarriek eta jarduera ekonomiko ezberdinek sektore berezitu bakar bat osatuko dute, baldin eta horien kenkarien ehunekoen eta jarduera nagusiari dagozkion arteko diferentzia %50etik beherakoa bada.

Jarduera nagusitzat hartzen ez diren jarduerak sektore berezitutzat hartuko dira, baldin eta horien kenkarien ehunekoen eta jarduera nagusiari dagozkion arteko diferentzia %50etik gorakoa bada.

a) letran ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera nagusia izanen da aurreko urtean eragiketen bolumenik handiena sortu duena.

b) Araubide berezi erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzakoan, inbertsioko urtearen bidezko eragiketen araubidean edo baliokidetzaren errekararen araubidean sarturik dauden jarduerak.

c) Kreditu entitateen Diziplina eta Esku-hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen finantza errentamenduaren eragiketak.



d") Kredituak edo maileguak lagatzeko eragiketak."

Hiru. 11.2.16. artikulua.

"16. Informatikako produktuen hornidura, ondasun-ematetzat hartzen ez denean. Dagokion euskarria aurkeztea zerbitzu-ematearen osagarritzat hartuko da.

Zerbitzu-ematetzat hartuko da, zehazki, jasotzailearen mandatuz eta haren zehaztapenen arabera egindako informatika produktuen hornidura, bai eta erabiltzaileak erabiltzeko moduan jartzeko funtsezko aldaketak behar dituztenak ere."

Lau. 17.2. artikuluaaren bigarren lerroka.

"Erosleak kenkari osoa egiteko eskubidea duela hartuko da Zerga jasan behar den urtean behin-behinekoz aplikatu beharreko kenkariaren ehunekoak kenkari oso-osoan egiteko aukera ematen duenean, are enpresa edo lanbide jardueri dagozkien ondasun-emate edo zerbitzu-emateak egin aurretik jasandako kuoten kasuan ere. Horren ondorioetarako, kenkariaren ehuneko hori kalkulatzeko orduan, ez dira kontuan hartuko Foru Lege honetako 50. artikuluko 2. zenbakiko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera hainbanaketaren zatitzailean sartu beharreko dirulaguntzak."

Bost. 26.4. artikulua.

"4. Balio Erantsiaren gaineko Zergapeko eragiketak kargatzeko kuotak ez badira propio faktura batean jasanarazi, ulertuko da kontraprestazioak ez dituela kuota horiek sartu.

Aurreko lerrokan xedatutakoa ez da aplikatuko honako kasuetan:

1. Zerga berez erasatea nahitaezkoa ez denean.

2. Artikulu honen 5. idatz-zatiko 2. zenbakiak aipatzen dituen kasuak."

Sei. 33. artikulua.

"33. artikulua. Zergaren erantzuleak.

Subjektu pasiboak ordaindu beharreko zerga zorraren erantzule solidario izanen dira eragiketen hartzaile direnak, egite edo ez-egite erruzkoa edo dolozkoaren ondorioz Zerga behar bezala erasatea saihesten badute.

Horren ondorioetarako, erantzukizuna jartzen den zehapenera ere hedatuko da."

Zazpi. 34. artikulua. 2 eta 3. puntuak.

"2. Zerga erasateko, faktura edo horren ordezkio agiria erabili beharko da, erregelamenduz ezarritzen diren baldintza eta beharkizunak betez.

Horren ondorioetarako, jasanarazitako kuota zerga-oinarritik aparte emanen da, are administrazioak finkatutako prezioen kasuetan ere, eta aplikatu den zerga tasa aipatu beharko da.

Zenbaki honetako aurreko lerrokaetan ezarritakotik salbuetsita gelditzen dira erregelamendu bidez finkatzen diren eragiketak.

3. Faktura edo horren ordezkio agiria luzatu eta ematerekin batera jasanarazi beharko da Zerga."

Zortzi. 35.2. artikulua.

"2. Aurreko zenbakian xedatutakoa inolako kuotarik jasanarazi ez den kasuetan ere aplikatuko da, eragiketa horren faktura edo horren ordezkio agiria egin baldin bada."

Bederatzi. 37. bat.1.6. artikulua.

"6. Zein ere aparatu edo osagarri, betaurreko graduatuak eta lentillak barne, beren ezaugarri objektiboek esker funtsez edo nagusiki gizakiaren edo animalien gabezia fisikoak berdintzeko erabil daitezkeenak, baita eskasia horiek mugimendua eta komunikazioa murrizten dutenak ere.

Zein ere produktu sanitario, material, ekipo edo tresna, objektiboki, gizakiaren edo animalien gaitzen prebentzio, diagnosi eta tratamendurako eta gaitz horiek arintzeko edo sendatzeko baizik erabili ezin direnak.

Idatz-zati honetan ez dira kosmetikoak sartzen, ez eta norberaren higienerako produktuak ere, salbu eta konpresak, tanpoiak eta slip-babesleak."

Hamar. 37. Bat. 3. artikulua.

"3. Honako eragiketa hauek:

1. Obra exekuzioak, materialak ekarrita nahiz ekarri gabe, nagusiki bizitzarako izanen diren eraikinak edo eraikin zatiak eraiki edo berritzeko asmoz, sustatzaileak eta kontratistak zuzenean eratutako kontratuen ondorio direnak, bertan diren lokalak, eranskinak, garajeak, instalazio eta zerbitzu osagarriak barne direla.

Eraikin bat nagusiki bizitzarako dela ulertuko da baldin azalera eraikiaren gutxienez ehuneko 50 horretarako erabiltzen bada.

2. Aurreko 1. idatz-zatiak aipatu dituen eraikinetarako sukalde armairuak eta armairu enpotratuak saltzea eta instalatzea, baldin saltze hori eraikin horiek eraiki edo berritzea sustatzen duenarekin eratutako kontratuen ondorioz egiten bada.

3. Obra exekuzioak, materialak ekarrita nahiz ekarri gabe, eraikinen edo aurreko 1. idatz-zatian

aipatu diren eraikin zatien Jabekideen Elkarrekin eta kontratatutako eraikin horietako garajeak egiteko asmoz zuzenean eratutako kontratuen ondorio zuzenak direnak, betiere obra exekuzio horiek kasuko Jabekideen Elkarrekin elementu komunak diren lur edo lokaletan egiten badira eta jabe bakoitzari bi aparkatoki baino gehiago ez bazaizkio esleitu behar."

Hamaika. 38.1. artikulua.

"1. Subjektu pasiboek Espainia barrenean egindako eragiketa kargatuengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotetan kenkariak egin ditzakete, hain zuzen, Espainia barrenean sortu eta ondoko eragiketengatik zuzenean jasanarazitako edo ordaindutako kuotak kendu ahalko dituzte:

1go. Zergapean dagoen beste subjektu pasibo batek egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-emateak.

2garren. Ondasunen inportazioak.

3garren. Foru Lege honen 9. artikuluko 1. idatz-zatiko c) eta d) letretan, 31. artikuluko 1. zenbakiko 2. idatz-zatian eta 85. quinque artikuluan adierazitako ondasun-emate eta zerbitzu-emateak.

4garren. Foru Lege honetako 13. artikuluko 1. idatz-zatian eta 16. artikuluan zehaztutako Europako Batasunaren barreneko ondasun-eskuratzekoak."

Hamabi. 43. artikulua.

"43. artikulua. Kenkariak egiteko formazko betebeharrak.

1. Kenkariak egiteko eskubidea erabili ahalko dute eskubide hori egiaztatzeko agiria duten enpresaburu eta profesionalak, ez bestek.

Horren ondorioetarako, kenkaria egiteko eskubidea justifikatzeko, honako agiri hauek onartuko dira:

1go. Jatorrizko faktura, ondasun-ematea egin duenak edo zerbitzua eman duenak luzatua, edo, haren izenean eta haren kontura, bezeroak edo hirugarren batek luzatua. Bigarren kasu horretan, erregelamendu bidez ezarritako betebeharrak bete beharko dira.

2garren. Inportazioaren gaineko Zerga ordaindu izanaren agiria.

3garren. Foru Lege honetako 110. artikuluan 1. zenbakian aurreikusitako kasuetan, subjektu pasiboak luzatutako faktura.

4garren. Jatorrizko ordainagiria, nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza ustiatzeko titularrak sinatua, Foru Lege honetako 79. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren kasuetan.

2. Aipatu agiri horiek legeaz eta erregelamenduz ezarrita dauden baldintza guzti-guztiak betetzen ez badituzte ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen, salbu eta behar bezala zuzentzen badira. Zuzenketa agiri baten bidez justifikatzen diren kuoten kenkariak egiteko eskubidea enpresaburuak edo profesionalak agiri hori jasotzen duen zergaldian edo ondokoetan baino ezin izanena da erabili, betiere Foru Lege honen 46. artikuluan aipatu epea bukatu ez bada, deusetan galarrak gabe Foru Lege honen 60. artikuluko 2. zenbakian adierazten dena.

3. Ez da onartuko kenkaria egiteko eskubidea justifikatzeko agiriaren arabera jasanarazi edo ordaindutako tributu kuotaren zenbatekotik gorako kenkaririk egitea. Tributu kuota propioa eta bereiz agertu beharko da.

4. Pertsona batek baino gehiagok elkarrekin erositako ondasun edo zerbitzuen kasuan, erosle bakoitzak dagokion zati proportzionalaren kenkaria egin ahalko du, betiere jatorrizko fakturan eta kopia guztietan jasotzaile bakoitzari dagokion zerga-oinarria eta bakoitzari jasanarazitako kuota agertzen badira, banaka-banaka eta bereizita."

Hamahiru. 45.4. artikulua.

"4. Kenkari gisa aurkez daitezkeen kuotak jasan direla ulertuko da, kasuko kuota jasan duen enpresaburu edo profesionalak kenkaria egiteko eskubidea ematen dion faktura edo justifikagiria jasotzen duen momentutik bertatik.

Zerga ordaindu beharra faktura jaso eta gero sortzen bada, kuota horiek sortzen diren unean berean jasango dira.

Foru Lege honen 110. artikuluan aipatzen diren kasuetan, kuotak artikuluan honetan aipatu faktura luzatzen den unean jasan direla ulertuko da, salbu eta kuotak faktura luzatu ondoren sortzen baldin badira, orduan, sortzen diren unean berean jasango baitira.

Foru Lege honen 44. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan aipatzen diren kasuetan, kuota kengarriak kenkaria egiteko eskubidea sortzen den unean jasan direla ulertuko da."

Hamalau. 47.1. artikulua.

"1. Jarduera ekonomikoak lanbide edo enpresa jardueratik aparteko sektoreetan egiten dituzten subjektu pasiboek bakoitzaren kenkariaren

araubidea bereiz aplikatu beharko dute, sektorez sektore.

Hainbanaketa bereziaren araua Foru Lege honen 9. artikuluko 1.c) ataleko a'), c') eta d') letretan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz finkatutako sektore bakoitzean aplikatu ahalko da, hots, enpresa edo lanbide jardueratik aparteko sektore horietako bakoitzean.

Foru Lege honetako 9. artikuluko 1.c) ataleko b') letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz finkatu diren jarduera sektore berezituari aplikatu beharreko kenkariaren araubideek bat etorri beharko dute letra hartan araubide berezi erraztuaren kasurako ezarritakoarekin, bai eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidearen kasurako, baliokidetzaren araubidearen kasurako eta inbertsioko urre bidezko eragiketen araubidearen kasurako ezarritakoarekin ere.

Jarduera sektore berezitu batean baino gehiagotan elkarrekin erabiltzeko asmoz, ondasun edo zerbitzuak erosi edo inportatzen direnean, Foru Lege honen 50. artikuluko 2. zenbakian eta ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da, erosketa edo inportazio horietan jasandako kuotei aplikatu beharreko ehunekoa finkatzeari begira. Horretarako, kasuan kasuko sektore berezitan egindako eragiketak konputatuko dira.

Aurreko lerrokadan aipatzen den ehunekoa kalkulatzeko, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetzaren araubide berezian sartzen diren eragiketek ez dute kenkariak egiteko eskubiderik sortuko, ez eta araubide erraztuan sartutakoek ere, baldin eta kenkaria Foru Lege honen 68.5 artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako ondasun edo zerbitzuei ez beste batzuei aplikatu behar baldin bazaie."

Hamabost. 65. artikulua.

"65. artikulua. Arau orokorrak.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide bereziak hauek dira:

1goa. Araubide erraztua.

2garrena. Abeltzaintza, nekazaritza eta arrantzaren araubide berezia.

3garrena. Ondasun erabilien, arte-lanen, antzinako gauzen eta bildumagaien araubide berezia.

4garrena. Inbertsioko urre bidezko eragiketen araubide berezia.

5garrena. Bidai agentzien araubide berezia.

6garrena. Baliokidetzaren araubide berezia.

7garrena. Bide elektronikoaz emandako zerbitzuen araubide berezia.

2. Titulu honetan araututako araubide bereziak borondatezkoak izanen dira, aurreko zenbakiko 4., 5. eta 6. idatz-zatietan bildutakoak izan ezik, hori guztia Foru Lege honen 85. ter artikuluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

3. Ondasun erabilien, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien araubide berezia Foru Lege honen 109.1 artikuluan 1. idatz-zatian adierazitako aitorpena, hots, Zergapeko jarduerak hasteko datari dagokiona, aurkeztu duten subjektu pasiboari aplikatuko zaie bakarrik.

4. Araubide berezi erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia kasu guztietan aplikatuko dira, subjektu pasiboek hura aplikatzeari uko egiten ez badiote. Uko egin nahi izanez gero, erregelamendu bidez ezartzen diren epeak eta bideak erabili beharko dira.

Ondasun erabilien, artelanen, antzinako gauzen eta bildumagaien araubide berezia kasu guztietan aplikatuko da, subjektu pasiboek hura aplikatzeari uko egiten ez badiote. Ukoa eragiketa jakin baterako egin ahalko da, Administrazioari propio jakinarazi gabe.

5. Bide elektronikoaz ematen diren zerbitzuei aplikatu beharreko araubide berezia Foru Lege honen 108 ter artikuluan adierazitako aitorpena aurkeztu duten operatzaileei aplikatuko zaie, hots, Nafarroako Foru Komunitatean zerbitzu elektronikoak ematen hasi zireneko datari buruzko aitorpena aurkezten dutenei."

Hamasei. 68.5.3. artikulua.

"3. Foru Lege honen 6. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren eraikinak eta bukeak entregatzea, hala nola aktibo finko ez-materialen eskualdaketak."

Hamazazpi. 69. artikulua.

"69. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia kapitulu honetan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten nekazaritza, oihangintza, abeltzaintza edo arrantza ustategietako titularrei aplikatuko zaie, salbu eta hura aplikatzeari uko egiten badiote erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Abeltzaintza, nekazaritza eta arrantzaren araubide berezitik salbuetsita geldituko dira honako hauek:

1go. Merkataritzako sozietateak.

2garren. Sozietate kooperatiboak eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak.

3garren. Aurre-aurreko urtean, erregelamenduz ezartzen den eragiketen bolumena gainditzen duten enpresaburu edo profesionalak.

4garren. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko araubidea aplikatzeari uko egiten dioten enpresaburu edo profesionalak, zeinahi delarik haien jarduera ekonomikoa.

5garren. Araubide erraztua aplikatzeari uko egiten dioten enpresaburu edo profesionalak.

6garren. Aurre-aurreko urtean, enpresa edo lanbide jarduera guztiak hartuta, ondasun eta eskubideen erosketa edo inportazioetan 300.000 eurotik gorako gastua egin duten enpresaburu edo profesionalak. Alde batera utziko da Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Aurre-aurreko urtean jarduera batean hasi baldin bada, erosketa edo inportazio horien zenbatekoa urte osokotzat hartuko da.

3. Ondasun eta zerbitzuen erosketa edo inportazioetako eragiketen bolumenari dagokionez, goiko 2. zenbakiko 3. eta 5. idatz-zatietan ezarritako muga gainditzeagatik araubide berezi horretatik salbuetsita gelditzen diren enpresaburu eta profesionalak, hurrengo urteetan muga hori gainditzen ez badute, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren pean geldituko dira, hori aplikatzeari uko egiten ez badiote behinik behin.

4. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeari egiten zaion ukoa hiru urterako izanen da gutxienez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzen arabera."

Hemezortzi. Artikulu berri bat gehitzea (79 bis).

"79. bis artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatzen hastea eta uztea.

1. Nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza edo arrantza jarduera jakin bati aplikatu beharreko tributazio araubidea araubide berezitik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezira aldatzen baldin bada, jardueraren enpresaburu edo profesional titularrak beharkizun hauek izanen ditu:

1go. Tributazio araubidearen aldaketa egiten den egunerako, jarduera horretan ekoiztu baina entregatu ez diren produktu naturalen entregari dagokion konpentsazioaren dirua sartzeari.

2go. Artikuluan xedatutakoari jarraikiz kalkulaturako da. Kalkulurako behin-behineko oinarria finkatzeko, zentzuzko irizpideak erabiliko dira, deusetan galarazi gabe hura zuzentzea konpentsazioaren zenbatekoa jakiten denean.

2garren. Jarduera edo ustiategian osorik edo partez egiazki kontsumitu edo erabili ez diren zerbitzu eta ondasunen kenkariak zuzentzea, inbertsioko ondasunei dagozkienak izan ezik.

Zenbaki honetan ezartzen diren beharkizunak betetzeari begira, enpresaburu edo profesionalak araubide berezia aplikatzen uzten duen egunari dagokion inbentarioa egin eta aurkeztu beharko du. Inbentario hori aurkezteko eta behar den dirua sartzeko orduan, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunak bete beharko dira.

2. Nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza edo arrantza jarduera jakin bati aplikatu beharreko tributazio araubidea nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik Zergaren araubide orokorrera aldatzen baldin bada, jardueraren enpresaburu edo profesional titularrak eskubide hauek izanen ditu:

1go. Araubide berezia aplikatzen uzten den egunean, jarduerari atxikitako ondasunen balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, egun horretan Zerga horri dagozkion tasak aplikatuz ateratzen den kuotaren kenkaria egitea. Ondorio horretarako, honako hauek ez dira kontuan hartuko:

a) Inbertsioko ondasunak, Foru Agindu honen 54. artikuluan ezarritakoaren arabera definituak.

b) Jardueran oso-osorik edo partez erabili edo kontsumitu diren ondasun eta zerbitzuak.

2garren. Foru Lege honen 75. artikuluan aurreikusten den goren mugako konpentsazioaren kenkaria egitea, ustiategian ekoiztuak izanik, tributazio araubidearen aldaketa egiten den egunean entregatu gabe dauden produktu naturalen ordainean.

Zenbaki honetan bildutako eskubideak baliatu ahal izateko, enpresaburu edo profesionalak araubide berezia aplikatzen uzten duen egunari dagokion inbentarioa prestatu eta aurkeztu beharko du. Inbentario hori aurkezteko eta eskubide horiek erabiltzeko orduan, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunak bete beharko dira.

3. Inbertsioko ondasunen eskuratze edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariak erregularizatzeko, jarduera araubide

berezi honi atxikita egon den aldietan aplikatu beharreko hainbanakoa zero izanen da."

Hemeretzi. Artikulu berri bat gehitzea (85 sexies artikulua).

"85. sexies artikulua. Fakturak gordetzea.

Inbertsioko urre bidezko eragiketak egiten dituzten enpresaburu eta profesionalak bost urtez gorde beharko dituzte eragiketa horiei dagozkien fakturen kopiak eta horien erregistroak."

Hogei. VIII. Tituluari VIII. Kapitulu berria gehitzen zaio, 108. bis, 108. ter eta 108. quater artikulua dituen.

#### "VIII. KAPITULUA

Bide elektronikoaz emandako zerbizuen araubide berezia

108. bis artikulua. Aplikazio eremua eta definizioak.

1. Nafarroan ezarrita ez dauden enpresaburu eta profesionalak Kapitulu honetan aurreikusitako araubide bereziari atxiki ahalko zaizkio, zerbiztu elektronikoak eskaintzen badizkiete Nafarroan ezarrita dauden edo ohiko helbide edo bizilekua Nafarroan duten pertsonen, enpresaburu edo profesional izaera dutenak alde batera utzita.

Araubide berezia honako zerbiztu-emate hauei aplikatuko zaie, hots, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko 1. idatz-zatiko 4. zenbakiko A) letrako c) letran xedatutakoaren arabera, edo Lege horren pareko diren Europako Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, Batasunaren barrenean egindakotzat hartu behar diren zerbiztu-emateei.

2. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "Europako Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionala": jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunaren barrenean ez duten enpresaburu edo profesionalak, Batasunaren lurraldearen barrenean establezimendu iraunkor bat ez dutenak eta, halaber, Foru Lege honen 109.1.2. artikuluan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 164.Bat.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo Lege horren pareko diren Europako Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, edo beste edozein arrazoi bategatik, Europako Batasunean identifikatua egon beharrik ez dutenak.

b) "Zerbiztu elektronikoak" edo "bide elektronikoaz emandako zerbiztuak". Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko Bat idatz-zatiko 4. zenbakiko B) letran adierazitako zerbiztuak.

c) "Identifikaziorako estatu kidea": artikuluhonetan xedatutakoari jarraikiz, Europako Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak jarduera hastearren deklarazioa aurkezteko aukeratzten duen Europako Batasuneko lurraldearen barreneko estatu kidea.

d) "Kontsumorako estatu kidea": Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko Bat idatz-zatiko 4. zenbakiko A) letrako c) letran xedatutakoaren arabera, edo Lege horren pareko diren Europako Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, zerbiztu elektronikoaren zerbiztu-ematea egiten deneko estatu kidea.

e) "Bide elektronikoaz emandako zerbiztuei aplikatu beharreko araubide bereziaren aldizkako aitorten-likidazioa": estatu kide bakoitzari dagozkion Zerga zatia finkatzeko beharrezkoa den informazioa biltzen duen aitorten-likidazioa.

3. Hona hemen araubide berezitik salbuesteko arrazoiak:

a) Araubide berezian bildutako eragiketak utzi direla aitortzeko idazkia aurkeztea.

b) Enpresaburuak edo profesionalak egiten zituen araubide berezi honen peko eragiketak utzi dituela ondorioztatzeko egitateak agertzea.

c) Araubide berezi honetara biltzeko behar diren baldintzak ez betetzea.

d) Araubide berezi honetako araudiak ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.

108. ter artikulua. Formazko betebeharrak.

1. Europako Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak aukeratzten duen identifikaziorako estatu kidea Espainia bada, indarreko Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoari jarraikiz, honako betebeharrak hauek izanen ditu Nafarroako Ogasunarekin:

a) Araubide berezi horren barreneko jarduerak noiz hasi, aldatu edo uzten dituen adieraztea. Aitorten hori bide elektronikoaz egiten du.

Europako Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak, zergapeko jardueretan noiz hasi den aitortzearekin batera, honako identifikazio datu hauek aurkeztu behar ditu: izena, helbide postala, helbide elektronikoa, Interneteko zein helbidetatik jarduten duen, jar-

dueraren egoitza den hirugarren lurraldeko Administrazio Fiskalean duen identifikazio zenbakia, eta, gainera, norberaren aitortpena, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baliokide den zerga aplikatzearen ondorioetarako, Batasuneko ezekin estatu kidean identifikaziorik ez duela adierazten duena. Horietako daturen bat aldatuz gero, enpresaburuak edo profesionalak aldaketa horren berri eman beharko du.

Araubide honen ondorioetarako, Zerga administrazioak identifikazio zenbaki bana emanen die Batasunean ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalari.

Zerga Administrazioak Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalari esleitu dion identifikazio zenbakia bide elektronikoaz jakinaraziko dio.

b) Hiruhileko natural bakoitzean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioa aurkeztea bide elektronikoaz, zerbitzu elektronikoak eman ez baditu ere. Aitortpen hori aurkezteko epea, likidazioa zein aldiri dagokion, hura bukatu eta hurrengo hogege eguneko izanen da.

Aitortpen-likidazio horretan identifikazio zenbakia eta, zerga ordaindu behar den Kontsumorako estatu kide bakoitzeko, honako datu hauek adierazi beharko dira: aitortpen-aldian posta elektronikoaren bidez emandako zerbitzuen balio osoa, eragiketa horiei kargatutako negozio-bolumenaren gaineko zerga kenduta, estatu kide bakoitzari guztira dagokion zerga eta, kopuru horiek guztiak baturik, ateratzen den zenbateko osoa, Espainian ordaindu beharko duena.

Eragiketen kontraprestazioa eurotan ez beste moneta batean finkatu baldin bada, eurotara ekarriko da, aitortpenaren azkeneko egunari dagokion truke-tasa aplikatuta. Moneta-trukea Europako Banku Zentralak egun horretan argitaratzen dituen truke-tasak aplikatuz eginen da, eta egun horretan argitaratzen ez badira, hurrengo egunekoak.

c) Aitortpena aurkeztearekin batera, zerga ordaintzea. Zergari dagokion dirua eurotan ordainduko da, Zerga Administrazioak adierazten duen banku-kontuan.

d) Araubide berezian sartutako eragiketen erregistroa eramatea, behar bezain zorrotz, hau da, kontsumorako estatu kideko zerga administrazioak goiko b) letran aipatu aitortpena zuzena ote den egiaztatzeko moduan.

Erregistroa Identifikaziorako estatu kideen eta Kontsumorako estatu kideen eskura izanen da. Estatu horietako zerga administrazioek eskatuz

gero, Europako Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak haien eskura jarri beharko ditu, posta elektronikoaren bidez bidaliz.

Eragiketen erregistroa hamar urtez gorde beharko du ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak, eragiketa egin den urtea bukatzen denetik aurrera.

e) Eragiketen jasotzailea Zergaren aplikazio esparruaren barrenean ezarrita dagoenean edo ohiko helbide edo bizilekua esparru horretan duenean, faktura edo horren ordezkoko agiria luzatu eta entregatzea.

2. Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak araubide berezian hasteko aitortpena Espainiaz kanpoko beste estatu kide batean aurkeztea aukeratu baldin badu, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko Bat idatz-zatiko 4. zenbakiko A) letraren c) letran xedatutakoaren arabera Zergaren aplikazio esparruaren barrenean egindakotzat hartu behar diren eragiketei dagokienez, eragiketa horiei dagokien zergaren ordainketa aurreko zenbakian aipatu aitortpena Identifikaziorako estatu kidean aurkeztuz egin behar da.

Gainera, Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesionalak aurreko 1. zenbakian aipatu beharkizunak Identifikaziorako estatu kidean bete beharko ditu, zehazki, zenbaki horietako d) letran adierazitakoak. Orobat, enpresaburu edo profesionalak faktura edo horren ordezkoko agiria luzatu eta entregatu beharra izanen du, eragiketen jasotzailea Zergaren aplikazio eremuan ezarrita baldin badago edo ohiko helbide edo bizilekua bertan baldin badu.

3. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Kapitulu honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emanen ditu.

108. quater artikulua. Jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 119. artikuluko Bi. idatz-zatiko 2. zenbakian xedatutakoa deuse-tan galarazi gabe, araubide berezia aukeratzen duten Batasunean ezarritako profesional eta enpresaburuek Zergaren aplikazio eremuan egindakotzat hartu beharreko ondasun eta zerbitzuak erosi edo inportatzeko orduan jasandako edo ordaindutako kuotak, Balio Erantsiaren gaineko Zergarenak alegia, itzultzeko eskubidea izanen dute, betiere ondasun eta zerbitzu horiek Foru Lege honen 108.bis artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatu zerbitzu-emateak egiteko erabiltzen

badira. Eskubide hori baliatzeko prozedura Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 119. artikuluan aurreikusitakoa izanen da.

Horren ondorioetarako, ez da eskatuko Zergaren aplikazio eremuan ezarritako enpresaburu edo profesionalen aldeko tratu-elkarrekikotasuna aitortua izatea.

Artikulu honetan ezarritakoari lotzen zaizkion enpresaburu edo profesionalak ez dute zerga administrazioarekiko harremanetarako ordezkari aurkeztu beharrik."

Hogeita bat. 109. artikulua.

"109. artikulua. Subjektu pasiboaren betebeharrak.

1. Aurreko Tituluan ezarritakoa galarazi gabe, Zergaren subjektu pasiboaren ondorengo betebeharrak izanen dituzte, betiere erregelamenduz ezartzen diren beharkizunak, mugak eta baldintzak kontuan harturik:

1goa. Zergapeko jarduerak noiz hasi, aldatu eta/edo utzi dituen jakinarazteko aitorpenak aurkeztea.

2garrena. Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea eta, ezartzen den kasuetan, hura jakinarazi eta kreditatzea.

3garrena. Egiten dituen eragiketa guztien fakturak egin eta entregatzea, erregelamenduz ezartzen denaren araberrakoak.

4garrena. Ezartzen diren kontabilitate eta erregistro liburuak eramatea, Merkataritzaren Kodean eta kontu-hartzailetzari buruzko gainerako arauetan ezarritakoa galarazi gabe.

5garrena. Hirugarren pertsonekin egiten dituzten eragiketen inguruko informazioa aldira aurkeztea, baita Administrazioak eskatzen duen guztietan ere.

6garrena. Kasuko aitorpen-likidazioak aurkeztea eta Zergaren zenbatekoa dagokion kontuan sartzea.

Aurreko lerroetan ezarritakoa galarazi gabe, subjektu pasiboaren urteko aitorpen-laburpena aurkeztu beharko dute.

Foru Lege honen 13. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako kasuetan, garraibidearen behin betiko matrikula egiteko beharrezkoa izanen da Zerga ordaindu dela egiaztatzea.

7garrena. Batasunean ezarrita ez dauden subjektu pasiboak badira, Foru Lege honetan ezarritako beharkizunak betetzeko ordezkari bat izen-

datzea, salbu eta Kanariar Irletan, Ceutan edo Melillan ezarrita badaude edo Batasunean lankidetzarako eraturik dauden tresnen antzeko bat duen beste estatu batean.

2. Enpresaburu edo profesionalak egindako eragiketen faktura egin eta entregatzeko beharkizuna enpresaburu edo profesional horien bezeroak bete ahalko du edo hirugarren batek, erregelamenduz ezarriko den moduan. Nolanahi ere, beti haien izenean eta kontura arituko dira.

Beharkizun hori enpresaburu edo profesionalaren bezero batek betetzen duenean, bi alderdien arteko adostasun idatzia beharko da. Gainera, enpresaburu edo profesionalak bere izenean eta bere kontura bezeroak egiten dituen faktura guzti-guztiak onartzen dituela bermatu beharko da.

Enpresaburuak edo profesionalak, bezeroak edo hirugarren batek, kasuko enpresaburu edo profesionalaren izenean eta haren kontura, egindako fakturak bide elektronikoa erabiliz igor daitzke, betiere fakturen jasotzaileak onartu baldin badu eta erabilitako baliabide elektronikoen bidez baldin badute jatorriaren autentikotasuna eta edukia oso-osorik iritsiko dela.

Fakturazio elektronikoa bete beharreko baldintzak erregelamenduz ezarriko dira.

3. Aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, Zerga honen subjektu pasiboak izan gabe ere, haren ondorioetarako enpresaburu edo profesional izaera dutenei, erregelamenduz ezarriko diren betebeharrak, mugak eta baldintzak kontuan hartuz.

4. Zerga Administrazioak, enpresaburuaren, profesionalaren edo subjektu pasiboaren tributu egoera ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen badu, Zergaren aplikazio esparruan egindako ondasun-erregistro edo zerbitzu-erregistro dagozkien fakturak gaztelaniara edo beste hizkuntza ofizial batera itzultzeko eskatu ahalko du, hala nola lurralde horretan ezarritako enpresaburu, profesional edo subjektu pasiboaren jasotako fakturen itzulpena.

Hogeita bi. 110. artikulua.

"110. artikulua. Fakturazio arloko arau bereziak.

1. Foru Lege honen 31. artikuluko 1.2. eta 1.3. puntuetan eta 85. artikuluan azaltzen diren kasuetan, eta Lege horren beraren 13.1. artikuluan aipatzen diren Batasunaren barreneko erosketak egiten direnean, kasuko ondasun-erregistro edo zerbitzu-erregistro egin zuenak luzatutako fakturarekin edo eragiketaren kontabilitate-agiriarekin batera Zergaren likidazioa agertzen duen

faktura aurkeztu beharko da. Faktura hori errege-lamenduz ezartzen diren baldintzen arabera izanen da.

2. Jasotzen diren fakturak, kontabilitateko justifikagiriak, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera luzatutako fakturak eta luzatutako gainerrako fakturen kopiak, bide elektronikoaz bidalita ere, Zergaren aldia preskribitu arte gorde beharko dira. Beharkizun hori hirugarren batek bete dezake, baina subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura arituko da.

Jasotako edo luzatutako fakturetan agertzen diren erosketetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota jasan edo ordaindu baldin bada eta kuota horien kenkarietarako erregularizazio aldia ezarri baldin bada, fakturak kuota horiei dagokien erregularizazio aldia amaitu eta hurrengo lau urteetan gorde beharko dira.

Letra honetan ezarritako beharkizunak betetzeko baldintzak erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Goiko 2. zenbakian fakturazio eta agiriak gordetzeari buruz ezarritako betebeharrak betetzeko beste hautabide batzuk eskaini ahalko dira, erregelamenduz, enpresa edo lanbide jardueraren garabiderako trabak saihesteko.

4. Subjektu pasiboak luzatutako edo jasotako fakturak baliabide elektronikoetan gordetzen baldin baditu, bermatu beharko du Zerga Administrazioak faktura horiek linean eskuragarri izanen dituela eta urrutitik kargatzeko eta erabiltzeko bidea dagoela. Beharkizun hori kasu guztietan bete beharko da, gordetzeko tokia zeinahi dela ere."

Hogeita hiru. 115.2.3. artikulua.

"3. Epearen barrenean sartu ez diren kuotak fakturan bidegabeki erasatea, Zergaren subjektu pasibo ez diren pertsonen kontura."

Hogeita lau. Lehenengo xedapen gehigarria.

Lehenengoa. Kontzeptuak eta definizioak.

Foru Lege honetan "estatu kide", "herrialdearen barrenean", "Europako Batasuna", "Europako Batasunaren lurraldea", "hirugarren lurraldea", "Zergaren aplikazio esparrua", "eremu berezia", "jurisdikziopeko urak", "ezarpen iraunkorra", "inportazioak", "bide elektronikoak emandako zerbitzuak" eta "telekomunikazio zerbitzuak" aipatzen direnean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen araudian kasuan-kasuan izen horiexekin definituta dauden kontzeptuak aipatzen dira."

### **Xedapen iragankorra**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 79. bis artikulua aplikatzeko aldi baterako araubidea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 79. bis artikuluen erregelamenduzko garapenak indarra hartu bitartean, behar denean, Foru Lege horren 100. artikuluen erregelamenduzko garapena aplikatuko da.

### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Foru Dekretu honek biltzen dituen arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

**Bigarrena.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen VIII. Tituluko VIII. Kapitulu berria aurreikusita dagoen merkataritza elektronikoaren araubide bereziak 2003ko uztailaren 1ean hartuko du indarra.





## 4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duen 4/2003 Foru Dekretua, deituko den hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea, abenduaren 14ko 13/2000 Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 12. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak esku ematen dion Nafarroako Gobernuari behar diren arau behin-behineko guztiak emateko Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta Estatuaren araudi substantibo eta formazko beraren arabera gobernatu behar diren tributueterako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Foru Komunitateak eta Estatuak 1990eko uztailaren 31n sinaturiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30. artikulua ezartzen du Zerga Berezien ordainarazteko orduan, araubide fiskal komunean eta Nafarroako foru araubidean finkatzen diren oinarritzko printzipio eta funtsezko eta formazko arauak ildo beretik jo behar dutela.

Beste alde batetik, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian, martxoaren 7ko 3/2002 Foru Legearen bidez onetsitako testuaren arabera, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergapezaren araubide berriari egokitzeko Erabakian ezarritakoa betetzeko behar diren behin-behineko arauak emateko.

Zerga Berezien araubide arrunta arautzen duen abenduaren 28ko 38/1992 Legeak zenbait aldaketa izan ditu, besteren artean: Alkoholen eta Edari Alkoholdunen gaineko Zergaren salbuespenen aplikazioa, Ardoaren eta Edari Fermentatuen gaineko Zergaren arau-haustea eta zehapenak; eta Zenbait garraiobideren gaineko Zerga Berezien kuotaen kenkariak. Hori dela-

eta beharrezkoa da, foru dekretu baten bidez, Nafarroan indarra izanen duten arauak ematea, 20/1992 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Arau horiek behin-behinekoak izanen dira eta Foru Dekretu hau onetsi eta hamar eguneko epean igorriko zaio Parlamentuari, honek behin-betikoz onetsi ditzan.

Hori horrela, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hiruko urtarrilaren hamahiruan egin bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira. Hona hemen haien testu berria:

Bat. 21. artikuluari bigarren paragrafo bat eranstea.

"Salbuespenaren aplikazioa, nekazaritzatik ateratako alkohol destilatua erabiltzen den kasuetan, baldintza honen pean geldituko da: alkoholak, markatzaile gisa, alkoholaren ozpina eramanen du, betiere arauzko portzentaje eta baldintzetan."

Bi. 32. artikulua, a) eta c) letrak.

"a) Tarteko produktuen fabriketan dagoen edo bertan erabiltzen den ardoaren edo edari fermentatuen gradu alkoholiko bolumetrikoko bereganatuari dagokionez, goitiko diferentziarik badago. Arauhaustea alkohol hutseko hektolitrotan adierazitako diferentziari legokiokeen kuotaen ehuneko ehuneko isunaz zehatuko da, Ardoaren eta Ekoiztutako edarien gaineko Zergarako ezarritako zerga tasa aplikatuz."

"c) Alkohola eta ekoiztutako edariak ez beste lehengaietan goitiko diferentziarik badago, tarteko produktuen fabriketan, erregelamendu bidez baimendutako portzentajeak baino handiagoak badira. Lehengaien xede diren tarteko produktuei legokiokeen kuotaen ehuneko ehuneko isunaz zehatuko da arau-haustea. Pentsatzekoa da, kontrarik frogatzen ez bada behinik behin, xede ziren tarteko produktuek %15etik goitiko gradu alkoholiko bolumetrikoa izanen dutela".

Hiru. 47 bis artikulua.1.

"1. Ondoko 2. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituen turismoko ibilgailu erabili baten titularra den subjektu pasiboak eskubidea edukiko du bere izenean dagoen turismoko ibilgailu berri baten behin betiko lehen matrikulazioa dela eta eskatu ahal den zergaren kuotan murrizketa bat

izateko. Murrizketaren prezioa 480,81 eurokoa izanen da, inolaz ere ez kuota baino handiagoa."

#### **Azken xedapena**

Dekretu honek biltzen dituen arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	